



Arartekoaren ebazpena, zeinaren bidez, amaitu baita 2020ko ekainaren 5eko Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorren bilakaera aztertzeke lana. Honela dio gomendioak: “Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez”.

2022ko apirila

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

AURKIBIDEA

1.	Sarrera.....	3
2.	Testuinguru sozial eta politikoa.....	10
3.	Administrazio publikoek emandako erantzunen edukiaren laburpena	23
3.1.	Konfinamenduak iraun bitartean (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eta haren luzapenen bidez lehenengo alarma-egoera deklaratu ondoren) etxerik gabeko pertsonen premiei erantzuteko garatutako jarduerak.	25
3.1.1.	Ikuspegi orokorrago batekin egindako esku-hartzeak:.....	25
3.1.2.	Ostatu hartzeko eskubidea eta oinarrizko beste behar batzuk ..	26
3.1.3.	Osasunerako eskubidea	29
3.1.4.	Elikatzeko eskubidea	30
3.1.5.	Betekizunak malgutzea	30
3.2.	Osasun- eta gizarte-arloko krisiari eta krisi ekonomikoari erantzuteko eta COVID-19aren hedapena geldiarazteko adostutako neurriak betetzeko garatutako jarduerak eta aurreikusten diren jarduerak...	32
3.2.1.	Ostatu hartzeko eskubidea eta oinarrizko beste behar batzuk .	32
3.2.2.	Osasunerako eskubidea	36
3.3.	Garatutako jarduerak eta EGPEE (2018-2021) estrategia betetzeko aurreikusten diren jarduerak	38
3.4.	Emakumeentzako baliabide espezifikoak.	43
4.	Arartekoaren 2020ko ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorren jarraipenaren ondorioak	46
ONDORIOAK.....		46
1.	Etxerik gabeko emakumeen eta gizonen hazkundera	46
3.	Egindako zenbait ebaluazio	47
4.	Etxebizitza egokia izateko eskubidea.....	48
5.	Etxegabetasunari aurre egiteko nazioarteko erakundeak	48
6.	Nazioarteko erakundeen proposamenak eta gomendioak.....	49
7.	Euskal gizarte-babeserako sistema.....	49
8.	Euskal herri-administrazioen erantzunen azterketa.....	49
9.	Emakumeen etxegabetasuna.....	51
10.	Finantzazioa.....	52
11.	Azken ondorioa	52
EKARPENAK.....		52
I.	Izaera integralekoak:	52
II.	Izaera sektorialekoak:.....	55

Arartekoaren Ebazpena, zeinaren bidez 2020ko ekainaren 5eko Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorrekin jarraitzea erabakitzen baita; hala dio gomendioak: "Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez".

1. Sarrera

1.1. Arartekoak, lehenengo alarma-egoera bukatzeaz zela, Gomendio orokor bat landu zuen, non azpimarratzen baitzen euskal administrazio publikoek kalean bizi diren pertsonak artatzeko ordura arte egindako ahaleginari eutsi behar ziotela, Etxerik gabeko pertsonentzako euskal estrategiak (2018-2021) zehazten zituen ildoak betetzen zirela sustatu behar zela eta aurrera jarraitu behar zela administrazio publiko eskudunek estrategia horrekin bat egiteko bidean: **Arartekoaren 2/2020 Gomendio orokorra**¹, 2020ko ekainaren 5ekoa: "Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez".² .

Gomendio orokor hori Arartekoa³ sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko **3/1985 Legea** eta, bereziki, haren 9., 10. eta 11. artikuluetan erakunde honi esleitzen zaizkion eginkizunen parte da. Gomendio hori gizarte-, ekonomia- eta osasun-ikuspegitik kritikoa zen une batean egin zen, COVID-19ak eragindako krisiaren, biztanleria konfinatzearen eta administrazio publiko gehienetan aurrez aurreko arreta etetearen ondorioz. Hori guztia martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua onartu ostean gertatu zen; Dekretu horrek alarma-egoera deklaratu zuen COVID-19ak eragindako osasun-krisia kudeatzeko, baita haren luzapenak ere, hala nola urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez bigarren alarma-egoera ezarri baitzen SARS-CoV-2ak eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko; luzapen hori 6 hilabetez egon zen indarrean, 2020ko azaroaren 9tik 2021eko maiatzaren 9ra bitartean⁴.

¹ ARARTEKOA. Arartekoaren 2/2020 Gomendio Orokorra, 2020ko ekainaren 5ekoa Hemen eskuragarri: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4971_1.pdf

² Eusko Jaurlaritza. Etxerik gabeko euskal estrategia (2018-2021) Hemen eskuragarri: https://www.euskadi.eus/contenidos/noticia/xiileg_planes_departamentales/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIA-VASCA-PARA-PERSONAS-SIN-HOGAR-2018-2021-euskera.pdf

³ Otsailaren 27ko 3/1985 legea, Ararteko erakunde sortu eta arautzekoa. Hemen eskuragarri: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_4338_1.pdf

⁴ Konstituzio Auzitegiak konstituzioaren kontratatzat jo ditu SARS-CoV2 birusaren hedapenaren ondorioz lehenengo Alarma Egoera ezarri zuen 463/2020 Errege Dekretuaren zenbait manu eta SARS-CoV2 birusak eragindako infekzioaren hedapena geldiarazteko bigarren alarma-egoera ezarri zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren manu batzuk.

148/2021 Epaia, 2021eko uztailaren 14koa. Konstituzio-kontrakotasuneko 2054-2020 errekurtsua. ECLI:ES:TC:2021:148. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2021-13032>; eta 183/2021 epaia, 2021eko urriaren 27koa. Konstituzio-kontrakotasuneko 5342-2020 errekurtsua. ECLI:ES:TC:2021:183 <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2021-19512>

Pentsatu zen osasun-krisia aukera bat izan zitekeela etxegabetasun-fenomenoa edo bizitegi-bazterketa larria prebenitzeko, murrizteko eta ezabatze⁵. Baina ez da gizarte-egoeraren aldeko bilakaerarik ikusi, eta, beraz, ezta etxegabetasunaren arazoa hobetu denik ere.

Osasun-krisiak eta lehendik hor zeuden eta gizarte-talde zaugarrietan betikotzen ari diren gizarte-zailtasunek kezka eragiten diote Arartekoari; 2019az geroztik, gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonen eta modu iraunkorren kalean bizi direnen edo gizarte-larrialdiko zerbitzuetan sartu-irtenean dabiltzanen kezak jasotzen ari da Arartekoa, eta hori kontuan hartzekoa da, egoera horrek eta hartutako neurrietatik datozen beharrek okerrera egin baitzuten COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz.

Azken urteetan, zenbait azterketak eta diagnostikok agerian utzi dute geroz eta pertsona gehiago daudela etxerik gabe⁶. Egoera horrek ez dio eragiten Euskadiri edo Espainiari soilik; etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten Erakunde Nazionalen Europako Federazioak (FEANTSA) zenbatetsi du Europar Batasunean % 70 egin duela gora azken 10 urteetan etxerik gabeko pertsonen kopuruak,

⁵ Europar Batasunean etxegabetasunaren definizio ofizialik ez dagoen arren, ezta Estatu kide guztiek onartzen duten definizio bakarra ere, adostasun handia dago –esparru politikoa ez ezik, hala gertatzen da zientzia-esparruan ere– etxerik gabeko pertsonen buruz Europako Behatokiak joan den mendeko 90eko hamarkadaz geroztik egin dituen ikerketa-lanak oinarri hartuta FEANTSAk (etxerik gabeko pertsonen lan egiten duten Erakunde Nazionalen Europako Federazioa) garatu duen esparru kontzeptuala egokitzeko orduan. Esparru kontzeptual horren oinarri dira Dragana Avramov soziologoak proposatutako definizioak; etxerik gabeko pertsonen Europako Behatokian ikerketaren koordinatzaile izan zen Avramov, 1994. eta 1998. urteen artean. Avramoven proposamenaren arabera, etxegabetasuna hau izango litzateke: "bizitzeko leku egoki bat modu iraunkorren ez edukitzea"; eta, etxerik gabeko pertsonak, "bizitzeko leku egoki batera modu iraunkorren sartu ezin diren guztiak, edo bizitoki horri eutsi ezin diotenak, zailtasun ekonomikoak eta beste oztopo sozial batzuk dituztelako edo modu autonomoan bizitzeko zailtasunak dituztelako; bizilagun horiek artatu eta babestu behar dira, baina instituzionalizatu gabe" (Avramov, 1996: 71). Etxerik gabeko pertsonentzako euskal estrategia (2018-2021).

⁶ SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. *V Estudio sobre la situación de las personas en situación de exclusión residencial grave en la CAPV 2020*. Gasteiz: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza, 2020 [linean]. Eskuragarri hemen:

https://mintegia.sis.net/files/descargas/Laburpen_Exekutiboa_2020.pdf

EUSTAT. Euskal Estatistika Erakundea. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika eta etxerik gabeko pertsonen buruzko inkesta, 2020. Gasteiz. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0019000/ti_2020an-pandemiaren-urtean-euskal-aeko-etxegabeentzako-zentroetan-egunero-arreta-jaso-zuen-pertsona-kopurua-2018koa-baino--165-handiagoa-izan-zen/not0019069_e.html

BAPTISTA, I. eta MARLIER, E. *Fighting homelessness and housing exclusion in Europe: a study of national policies*. European Social Policy Network (ESPN). Brusela: Europako Batzardea, 2019. Eskuragarri hemen: <https://data.europa.eu/doi/10.2767/10.2767/> Eskuragarri hemen: <https://op.europa.eu/en/publication-detail/-/publication/2dd1bd61-d834-11e9-9c4e-01aa75ed71a1/language-en>

ABBÉ PIERRE FUNDAZIOA ETA FEANTSA. *Sexto informe sobre exclusión residencial en Europa*, 2021. Eskuragarri hemen: https://www.feantsa.org/download/executive-summary_es5271395003314455519.pdf

700.000 pertsona inguru gehiago, egin diren ikerketen arabera. Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko⁷ **Ebazpenak**, guztientzako etxebizitza duina eta eskuragarria lortzeari buruzkoak, Europan egin diren ikerketa horiek jasotzen ditu.

FEANTSAk, halaber, adierazi du egoera sozioekonomiko eskasagoa duten Estatuetan herritar gehiago daudela egoera horretan.

Gizarte- eta bizitegi-bazterketa zerk larriagotzen duen jakitea lagungarri gerta daiteke etxegabetasunaren fenomenoaren prebenitzen laguntzeko. Ikerketek adierazten dute arrazoi horien artean daudela lan-merkatuko zailtasunak, langabeziaren kronifikazioa eta prekarietatea (behin-behinekotasuna, azpiokupazioa, soldata-desberdintasunak...) eta babes-sareen ahulezia. Zalantzarik gabe, kontuan hartu behar diren faktore askok hartzen dute parte⁸; haietako batzuk, hain zuzen, etxebizitza-merkatu pribatuarekin eta etxebizitza-politika publikoekin erlazionatuta daude.

Aipatu den bezala, Arartekoak, orobat, egiaztatu ahal izan du azken urteetan gora egin duela erakundearen hiru egoitzetara iristen ziren etxerik gabeko pertsonen kontsulta- eta kexa-kopuruak, eta nabarmen handitu dela azken hilabeteetan. Kexak, nagusiki, leku faltari eta jasotzen zuten arreta sozialari zegozkien. Kexa horietako batzuk emakumeei zegozkien, eta horrek areagotu egin du kezka, haien zaurgarritasuna dela eta. Kezka-faktore gehigarria izan da 50 urtetik gorako geroz eta emakume gehiagok jo izana banaka erakundera babes bila, haien arrisku espezifikoak eta haien premiak artatzeko beharra dela eta⁹.

⁷ EUROPAKO PARLAMENTUA. Ebazpena, Europako Parlamentuarena, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, guztientzako etxebizitza duina eta eskuragarria lortzeari buruzkoa (2019/2187(INI). Eskuragarri hemen: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2021-0020_ES.html

⁸ DE LA FUENTE.I. eta SÁNCHEZ E. *Gran Recesión y Sin Hogarismo: trayectorias de Exclusión Social en la Ciudad de Madrid. Minorías no Brasil e na Espanha; atores, desafíos e políticas*. UFOB Joao Pessoa argitaletxea, 2020.

BAPTISTA, I. eta MARLIER, E., op. cit.

⁹ BIZITEGI ELKARTEA. *Bizitegi-bazterketa egoeran dauden emakumeen errealitateari buruzko ikerketa*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpenen Zerbitzu Nagusia, 2019. Eskuragarri hemen: https://www.bizitegi.org/wp-content/uploads/2019/07/Emakumeen-errealitateari-buruzko-ikerketa_eus.pdf

SALA FERNÁNDEZ, E. eta ACAS FERRÉ, R.: *Sinhogarimos femenino: presente y futuro de una experiencia de abordaje integral*. Hemen: Izaola Argüeso, Amaia (koord.). Politika Sozialeko Espainiako Sarearen VIII. Biltzarra. REPS 2021 Bilbo. *Cuidar la vida, garantizar la inclusión, convivir en diversidad: consensos y retos*. Biltzarreko aktak. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2021. Eskuragarri hemen: https://www.reps-bilbao.com/wp-content/uploads/2022/01/Congreso_REPS.pdf

Horrekin lotuta, emakumeen etxegabetasunari buruz berriki egin den azterketa baten (Bretherton, J. and Mayock, O., 2021)¹⁰ ondorioak mahaigaineratu dira; azterketa horrek dio arazo horren garrantzia, emakumeei dagokienez, gutxietsi egiten dela eta emakumeak gutxiago aztertzen eta lantzen direla gizonak baino. Hala, ikusten da oraindik ere oinarritzko datuak falta direla emakumeetan fenomeno horrek duen izaerari, hedadurari eta inpaktuari buruz, baita emakumeen premia espezifikoari eta bizitegi-bazterketa sozial larria jasaten ari diren baina beste behar batzuk dituzten –adibidez, pertsonen salerosketaren edo genero-indarkeriaren biktimak– beste emakume batzuekiko harremanari buruzkoak ere.

Azken finean, asko dira azken hilabete hauetan Arartekoaren bulegora hurbildu diren pertsonak helarazi dizkiguten kezkak, arazoak eta bizipenak.

1.2. Orain, Arartekoari aurkeztu zaizkion kexen edukia azalduko dugu; kexa horiek erakusten eta justifikatzen dute erakunde honek 2020. urtean egin zuen eta 2021ean jarraipena egin dion gomendioaren egokitasuna eta beharra:

Plazei eta esku-hartze sozialari dagokienez:

- Emakumeentzako espezifikoak diren aterpetxeak eta plazak falta dira, haientzat seguruak direnak, banakako logelekin, baita bestelako plazak ere etxerik gabeko emakumeentzako aterpetheen ordezkotzako aukera diren bizileku-baliabide pertsonalagoetan¹¹.
- Gizonentzako aterpetxeak edo plazak falta dira, profil edo behar pertsonalizatuagoetara egokituak edo bakoitzaren adinaren eta osasun-arazoen arabekoak.
- Orientazioa eta laguntza pertsonalizatua eta aldizkakoa behar da, esku-hartze sozialeko prozesuaz arduratzen diren langileen eskutik.
- Desadostasuna dago esku-hartze sozialeko taldeek aterpetxeetan eta etxerik gabeko pertsonentzako beste bizitoki-baliabide batzuetan izandako jarduketarekin eta komunikazioan eta hartu dituzten erabakietan izandako berme faltarekin.
- Premia sozialeko gizarte-zerbitzuak gain hartuta daude hiriburuetan eta beste hiri batzuetan, hala nola Barakaldon eta Irunen.

¹⁰ BRETHERTON, J. AND MAYOCK, P. (2021) *Women's Homelessness: European Evidence Review*. Brusela, 2021. Eskuragarri hemen: https://eprints.whiterose.ac.uk/172737/1/FEANTSA_Women_s_Review.pdf

¹¹Berriki egin den azterketa baten emaitzek agerian uzten dutenez, "geroz eta emakume gehiago daude etxerik gabe, haien osasun fisikoak eta buru-osasuna geroz eta hondatuago dago, eta ondoez psikologiko handiagoa dute. Indarkeria eta aporofobia ere geroz eta nabarmenagoak dira haientzat. Esan dezakegu emakume izatea arrisku-faktore bat dela etxerik gabeko pertsonentzat. % 13k adierazi du sexu-erasoren bat jasan duela. Hala ere, etxerik gabeko emakumeek bakartze txikiagoarekin egiten diote aurre etxegabetasunari, eta hobeto egiten diote aurre arrakala digitalari ere. FACIAM. *Exclusión social y COVID-19: el impacto de la pandemia en la salud, el bienestar y las condiciones de vida de las personas sin hogar*, [2021]. Eskuragarri hemen: <https://faciam.org/2021/11/29/exclusion-social-y-covid-19-el-impacto-de-la-pandemia-en-la-salud-el-bienestar-y-las-condiciones-de-vida-de-las-personas-sin-hogar/>

- Zailtasunak daude eguraldi txarrari aurre egiteko. Geroz eta zailagoa da kalean ere babesleku bat topatzea. Euria eta hotza saihestezinak dira bizilekurik ez dutenentzat.
- Gabeziak daude etxerik gabeko pertsonak artatzeko zerbitzuetan (arreta-ordutegia, eguraldi txarrarekin kalean itxaron behar izatea...).
- Gizarte-zerbitzuen ordutegiak ez dira egokitzen pertsonen beharretara.
- Denbora luzez ez dute izaten bizileku baterako sarbiderik, egun gutxi batzuetarako besterik ez bada ere.
- Egonlekuak husten dira, beste bizilekurik edo beren objektu pertsonalak eta dokumentazioa uzteko beste lekurik eskaini gabe.

Osasun-beharrei dagokienez:

- Arreta espezializatua behar da, gaixondoko arazoak edo osasun-behar gehigarriak direla eta.
- Osasun mentaleko arazoak eta toxikomania-egoerak; esku-hartzeak zailtzen dituzte eta erantzun espezializatuak behar dituzte.
- Aserziozko tratamendu komunitarioaren beharra dago osasun mentalaren esparruan, Bilbo ez den beste eskualde batzuetan.

Administrazio arteko eta barneko koordinazioari dagokionez:

- Askotariko bideratzeak egin dira, udaleko gizarte-zerbitzuen artean koordinazio egokirik egin gabe, zehazteko udal-errodan izena emanda ez dagoen pertsona baten premia sozialeko larrialdi bat artatzeko zein den gizarte-zerbitzu eskuduna.
- Ospitaleetako egonaldien osteko altak, espetxeetako edo gazteen justizia-zentroetako irteerak edota beste egoitza-zentro batzuetako irteerak hobeto koordinatzeko beharra dago, arretak jarraipena izan dezan.

Administrazio-izapideak egiteari dagokionez:

- Zailtasunak dituzte errodan izena emateko eta gizarte-bazterketako balorazioa egiteko, ez dutelako jatorri-herrialdean egindako pasaportetik.
- Ezinbestekoa da zenbait izapide egitea, zeinek esku-hartze soziala atzeratzen baitute; adibidez, udalerrri jakin bateko errodan izena ematea edo gizarte-bazterketaren balorazioa egitea. Hori egin bitartean, ez da laguntza sozialik aurreikusten.
- Legez kanpoko administrazio-egoeran dauden pertsonen kasuan, zailtasunak dituzte bizileku bat izateko eta lanerako baimen administratiboak lortzeko.

-Oinarrizko premiak asetzeari dagokionez:

- Emakumeen eta gizonen beharrei erantzungo dien gutxieneko higiena mantentzeko beharra dago.
- Elikadura-beharrak behar bezala asetzeko zailtasunak daude, kontuan hartuta pertsona bakoitzaren egoera, hala nola trebakuntza-lantegietara joatea.

Beste batzuk:

- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistematik kanporatuak izaten dira jokabide-arrazoik direla eta, trukean beste bizilekurik eman gabe eta, batzuetan, prozedurazko oinarrizko bermeak bete gabe.
- Egonleku informalak eta hirietako kaleak husten dira, eta bakoitzaren gauzak suntsitu.
- Zentroetan bizikide dituzten beste pertsona batzuekiko harremanaren inguruko keak izan dira.
- Kalean bizi diren zenbait pertsonaren egoera; ez dute onartzen inongo esku-hartze sozialik, eta haien segurtasuna arriskuan dago, eguraldi txarra edo haien osasun-egoera direla eta.
- Ezkutuko etxegabetasun-egoerak hautematearen garrantzia; nagusiki, emakumeei eragiten die.

Arartekoaren 2/2020 Gomendio orokorra, 2020ko ekainaren 5ekoa, argitaratu zenetik, egoera ez da argitu, baina orain informazio gehiago dago, ez soilik etxerik gabeko pertsoneri buruz, baizik eta, zenbait azterketak nabarmendu dutenez¹², baita profesionaleri buruz ere; horregatik, garrantzitsua da autobabeserako/burnout sindromearen prebentziorako barne-dinamikak izatea, Arartekoak gomendatu duen bezala¹³.

Arartekoak egiaztatu ahal izan du geroz eta anitzagoak dira etxerik gabeko pertsonen profilak. Hain zuzen ere, kaleko egoerak adin ertaineko pertsoneri eragiten die, baina, geroz eta gehiago, baita adineko pertsoneri, emakumeei, gazteei eta, ehuneko handi batean, zenbait kultura-jatorritako pertsoneri ere.

Zehazki, familia-erreferentziarik gabe gure hirietako kaleetan bizi diren gazte atzerritarren beharrak aztertu ditu Arartekoak, berariaz, 2021ean. "*Familia-erreferenterik ez duten gazte migratzaileak Euskadin*"¹⁴ azterketak agerian uzten ditu askotariko izaerak dituzten pertsonaz osatutako talde horrek dituen zailtasunak, hala nola udal-eroldan izena emateko zailtasunak, bizitzeko eta lanerako baimena lortzeko eta berritzeko zailtasunak, oinarrizko premiak asetzeko zailtasunak, emantzipaziorako programetan parte hartzeko zailtasunak eta prestakuntza-aukeretan parte hartzeko zailtasunak, eta, gainera, geroz eta "kaleko" egoera¹⁵ gehiago hautematen dira; horrek aukera eman du datu eta ikuspegi berriak sartzeko txosten honek xede duen Gomendioaren jarraipenean.

¹² MATULIC, M., MUNTE, A., DE VICENTE, I., REDONDO, G. *Sinhogarismo en tiempos de confinamiento: vivencias profesionales y ciudadanas en la ciudad de Barcelona*. "Itinerarios de Trabajo Social". Bartzelonako Unibertsitatea. ISSN-E:2696-4244

¹³ ARARTEKO ERAKUNDEA. *Udaletako gizarte-zerbitzuen egoera Euskadiko Autonomia Erkidegoan. Egungo egoera eta hobetzeko proposamenak*. 4. gomendia. Eskuragarri hemen: <https://www.ararteko.eus/eu/udal-gizarte-zerbitzuen-egoera-euskal-autonomia-erkidegoan-egungo-egoera-eta-hobetzeko-proposamenak-0>

¹⁴ ARARTEKO ERAKUNDEA. *Familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak Euskadin*. Eskuragarri hemen: https://www.ararteko.eus/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_5100_1.pdf

¹⁵ Euskal administrazio publikoak Euskari Estrategian lanean ari dira behar horiei erantzuteko; estrategia hori zaurgarritasun-egoeran dauden adingabeen eta 21 urtera bitarteko gazteen arazoaren aurrean euskal erakundeen artean emandako erantzuna da, nahiz eta Arartekoaren azterketak kontuan hartzen duen gazte horien beharren osotasuna.

1.3. Ikusirik pertsonarik zaurgarrienen egoera, ez hobetzeaz harago, okerrera egiten ari zela¹⁶, erakunde honetan jasotzen ari ziren kexek erakusten zutenez, eta pandemiaren bilakaeraren ondorioz bizileku-bazterketan zeuden pertsonentzako neurri espezifikoak mantendu behar zirenez, 2021ean jarraipena eman zitzaion lehen aipatutako Gomendio orokorrari, eta euskal administrazio publikoei informazioa eskatu zitzaion gomendio horrekin erlazionatutako zenbait gairi buruz eta, zehazki, emakumeen egoerari buruz, haien egoera zaurgarriagoa baloratzeko eta bizi-proiektu bat gauzatzeko ezintasunagatik:

- a) Arartekoaren gomendio orokor horri erantzuteko egindako jarduerak.
- b) COVID-19aren progresioaren ondorioz, pandemiaren bilakaera dela-eta hartu edo berrezarri beharreko neurrien aurreikuspena.
- c) Etxerik gabeko pertsonentzako euskal estrategia (2018-2021) betetzeko egindako jarduerak.
- d) Lehendik dauden eta indartu diren emakumeentzako baliabide espezifikoaren egoera, halakorik balego.
- e) Interesgarritzat jotzen duten beste edozein kontu.

Informazio-eskaera horiek haiek betetzea dagokien zenbait administrazio publikori egin zaizkio Arartekotik, bakoitzaren eskumenaren eta udalerrien biztanleriaren arabera:

- Eusko Jaurlaritzaren Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari.
- Eusko Jaurlaritzaren Garraio, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari.
- Gizarte Zerbitzuen Sailari. Arabako Foru Aldundiari.
- Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasuna Sustatzeko Sailari. Bizkaiko Foru Aldundiari.
- Gizarte Politiketako Departamentuari. Gipuzkoako Foru Aldundiari.
- Bilbo, Irun, Gasteiz, Portugalete, Getxo, Barakaldo, Donostia, Laudio, Santurtzi eta Sestaoko Udalei; eta Eudel ere jakinaren gainean jarri da.

Esan behar dugu eskaera bidali diegun administrazio guztiek helarazi digutela eskatutako informazioa.

Jarraipen-txosten honek Arartekoak laguntza eskatutako gaiei buruz administrazio publikoek emandako erantzunak jasotzen ditu.

Administrazio publikoek bidalitako informazioa desberdina denez egin dituzten programen xehetasun-mailari dagokionez, jasotako informazioa tratatu eta sistematizatu egin da, etxerik gabeko pertsonak artatzeko egin diren esku-hartzeei buruzko ahalik eta irudi errealena izateko. Egin diren esku-hartzeak jasotzen dituen dokumentua administrazio publikoei bidali zaie berrius dezaten, informazioa osatu ahal izateko eta beste administrazio batzuetatik jasotako erantzunak jakinarazteko; gisa horretan, era berean, erantzunen edukia koordinatu nahi da. Hasierako informazioa bidali ostean, zenbait administrazioek xehetasunak argitu dituzte eta informazio gehiago bidali dute, zeina dagokion atalean sartu baita.

¹⁶ Lehen aipatu den azterketan, emaitzen artean ikusten da etxegabetasun-egoerarik larrienak gora egin duela. FACIAM, op. cit.

Era berean, kontuan hartu da Arartekoari aurkeztu zaizkion kexen edukia eta gizarte-erakundeekin, hala nola Beste bi Plataforma ("Danok bizilekua izatearen eta aterpe bakoien aldeko plataforma") eta Gipuzkoako Sos Arrazakeria erakundeekin egindako bileretako edukia. Halaber, ondorioak eta jarduera-proposamenak kontrastatu dira Eguía Careaga Fundazioaren SIIS - Dokumentazio eta Ikerketa Zentroarekin.

Jarraipen honetan, Arartekoak aintzat hartu du, halaber, Eusko Legebiltzarraren Legez besteko Proposamena¹⁷, 2016ko otsailaren 19koa; Proposamen horretan, Eusko Jaurlaritzari eskatzen zitzaion estrategia integral bat landu zezala, erakunde eskudunekin, eragile sozialekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, errotik aldatzeko etxerik gabeko pertsonen egoera eta, hala, etxerik gabeko pertsonak gizarteratzeko eta bizitzako esparru guztietan gizarte-arreta jasotzeko prozesuak bermatzeko, modu koordinatuan eta bikoiztasunak saihestuz. Arartekoak Proposamen horren garrantzia nabarmentzen du; izan ere, Proposamen horren arretagunea kolektibo bat da, bere zaurgarritasun-egoeraren eta gizarte-abandouaren ondorioz bere eskubideak baliatu ezin dituen. Hain zuzen, Proposamen horri esker, 2018an abian jarri zen Etxerik gabeko pertsonen euskal estrategia (aurrerantzean, EGPEE), eta harekin bat egin dute Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek, Eudelek, eta Bilboko, Gasteizko, Donostiako, Barakaldoko, Getxoko, Portugaleteko, Irungo, Santurtziko eta Laudioko Udalek.

Hurrengo atalek, hasiera batean, etxerik gabeko pertsonen eragiten dien testuinguru sozial eta politikoaren laburpen bat jasotzen dute. Gero, administrazio publikoek egindako informazio-eskaerari eman dizkioten erantzunak jaso dira, eta, azken atalean, egin den jarraipenetik atera diren ondorioak.

2. Testuinguru sozial eta politikoa

2.1. Une honetan, etxerik gabeko pertsonen kopurua, egoera eta beharrak gorantz doaz nazioartean, estatuan nahiz tokiko mailan. EAEn, zenbaketak egiten dira¹⁸ 2010. urteaz geroztik; adibidez, 2010ean Bilbon egin zen bat, 2011ko martxoan Donostian beste bat, eta bi urtez behin EAeko geroz eta udalerrri gehiagotan egiten dira, 2012az geroztik. 2012. urtean, hiru euskal hiriburuetan zenbatu zen gauez etxerik gabeko zenbat pertsona zeuden kalean. 2014an, 10 udalerririk egin zuten

¹⁷ EUSKADI. LEGEBILTZARRA. Legez besteko 5/2016 Proposamena, Legebiltzarrari etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko estrategia integrala eta hark euskarri duen gizarte-inklusio aktiboko plana berehala bidaltzeko dagokiona [linean]. Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 2016-02-19koa, 159. zk. Eskuragarri hemen: https://www.legebiltzarra.eus/ic2/restAPI/pvgune_descargar/default/eaf2a3cd-ae63-43dd-9910-27a689cc9c8e

¹⁸ Zenbaketak ikusteko: <https://www.berrituz.eus/eu/experiencias/recuento-de-personas-en-situacion-de-exclusion-residencial-grave/ex-46/>

Azkena aipatu da: **SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroa. EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen egoerari buruzko V. ikerketa, 2020.** Gasteiz: Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Eusko Jaurlaritza. 2020 [linean]. Eskuragarri hemen: https://mintegia.siiis.net/files/descargas/Laburpen_Exekutiboa_2020.pdf

zenbaketa hori; eta, 2016an, 24 udalerrik. 2018. urtean, 26 euskal udalerrik egin zuten zenbaketa¹⁹.

2020ko edizioan, COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren ondorioz, Bilboko Udalaren ekimenez adostu zen metodologia egoera horretara egokitzea, eta EAEn bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden etxerik gabeko pertsonen azken zenbaketa egin zen, 2020ko maiatzaren 4tik 10era bitartean, biak barne; konfinamendua baliatu zen horretarako, eta herritarrak hartzeko establezimendu bereziak ireki ziren. 19 udalerrik hartu zuten parte.

Zenbaketa horretan, kontuan hartu ziren ETHOS kategoriak, aterperik gabe 1 eta 2, bizitokirik gabe, 3tik 7ra. ETHOS siglak²⁰ (European Typology of Homelessness and Housing Exclusion) tipologia bati dagozkio, zeina 2005ean sortu baitzen eta 2006an eta 2007an berrikusi baitzen; tipologia horretan, lau kategoria kontzeptual bereizi behar dira, beste hamahiru kategoria operatibotan banatuak, eta, hala, 24 azpikategoria sortzen dira, hainbat bizitoki-egoera jasotzen dituztenak eta, beraz, bizitegi-bazterketaren arazoa ere jasotzen dutenak.

Zenbaketa horretan, bizitegi-bazterketa larriko egoeran zeuden 2.797 pertsona lokalizatu ziren Euskadin. Pertsona horien guztien proportzio txiki bat (% 5,8) etxeko konfinamendua indarrean egon arren hainbat arrazoiengatik kalean zegoen jendea zen. % 12,5 aterpetxeetan eta ohiko abegi-zentroetan zeuden, eta, % 30,2, pandemiarako prestatu ziren establezimendu bereziren batean. Azkenik, identifikatu ziren pertsona guztietatik, % 6 indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako harrera-zerbitzuetan zeuden, eta, % 45,4, gizarte-bazterketako egoeran edo egoera hori jasateko arriskuan dauden pertsonentzako gizarte-zerbitzuen ostatueta. Lokalizatu ziren ia 2.800 pertsonetatik, 372 Araban zeuden (% 13), 1.468 Bizkaian (% 53) eta 957 Gipuzkoan (% 34). Kalean aurkitutako 163 pertsonetatik %69k (113 lagunek) euskal hiru hiriburuetakoa batean egin zuten lo, eta, gainontzekoek, kalean gutxienez lagun bat ikusi zen 13 udalerrietako batean. Bilbon 68 pertsona aurkitu zituzten (guztira, aurkitutako 163 lagun horien %42); Donostian, 29 (%18); eta Gasteizen, 15 (%10). Barakaldon (Bizkaian biztanle gehien dituen bigarren udalerria) guztira 10 lagun aurkitu zituzten (%6,1), Erreterian (Gipuzkoan biztanle gehien ditun hirugarrena), 9 (%5,5); Leioan, 8 eta Getxon, 6 lagun. Kalean zeuden gainerako pertsonak (17 lagun), gainontzeko 12 udalerrietatik 9tan zeuden, eta hiru udalerritan (Beasain, Eibar eta Tolosa) ez zen pertsona bakar bat ere aurkitu.

Pandemiarako prestatu ziren establezimendu berezietan kokatuta zeuden pertsonen %82 kaleko egoeretatik edo beste baliabide batzuetatik zetozen.

Azterketa horretako ondorio batek nabarmentzen zuen egoera horiek goranzko joera zutela, bereziki Bilbon, eta leunagoa beste hiri batzuetan, hala nola Gasteizen

¹⁹ Amurrio, Arrasate, Barakaldo, Bergara, Bilbo, Donostia, Eibar, Erandio, Erreteria, Galdakao, Getxo, Gueñes, Hernani, Irun, Laudio, Legazpi, Leioa, Oiartzun, Pasaia, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Tolosa, Urduña, Gasteiz eta Zalla.

²⁰ FEANTSA. *Tipología Europea de Sin Hogar y Exclusión Residencial*: https://www.feantsa.org/download/ethos_spain-24518105836657575492.pdf

eta Donostian eta Gipuzkoako eta Bizkaiko²¹ beste udalerrri handi batzuetan. Azterketak datu interesgarriak ematen ditu bizitegi-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen egoerari eta beharrei buruz.

Eustatek egindako Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen 2020ko estatistikaren²² arabera, EAEko etxerik gabeko pertsonentzako zentroek 2018an baino % 16,8 pertsona gehiago artatu zituzten egunero. Sareak egunean batez beste 3.471 pertsona hartu zituen, hots, 2018an baino % 16,5 gehiago; gizarte-bazterketa larriko egoeran zeuden 622 pertsona, zeinek EAEn prestatutako 45 aterpetxeetan eta eskakizun txikiko zentroetan lo egin baitzuten. Haietatik, 89 emakumeak ziren.

Etxerik gabeko geroz eta pertsona gehiago egoteak kezka pizten du gizarte-erakundeetan²³ eta giza eskubideen arloan diharduten beste erakunde batzuetan, nazioarte-mailan, estatu-mailan, eskualde-mailan nahiz tokikoan. 2010-2014 epean izan zen finantza-krisiak eta hipoteka ez ordaintzearen ondorioz etxebizitza galtzearen aurrean izandako erreakzio sozialak agerian utzi dute gizarte-arazo larri hau.

2.2. Azken hamarkada honek dagoeneko izana zuen krisi ekonomiko bat, gizarte-bazterketak eta -desberdintasunak gora egitea eragin zuena²⁴. Etxerik gabeko pertsonen profil berriak askotarikoak dira adinari, sexuari edo jatorriari dagokienez, eta horrek gure sistemaren "zulo beltzetara" bideratzen du arreta; izan ere, sistema hori lanpostu bat eta familia bat zuten edo beren jatorrizko herrialdeko indarkeriari, gatazkari edo muturreko pobrezari ihesi etorrira lurralde berri batean aukerak izan nahi zituzten pertsonak sistematik kanporatzen ari da.

COVID-19ak eragindako pandemiaren eta osasun-krisiaren eta krisi sozioekonomikoaren bilakaerak eragina izan zuen urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretu berria onartzean, zeinaren bidez alarma-egoera ezarri baitzen SARS-CoV-2ak eragindako infekzioak hedatzea saihesteko, baita haren luzapenetan eta Euskadin handik eratorritako araudi bat ezartzean ere²⁵.

Etxerik gabeko pertsonetan izan duen eragina nabarmena izan da, nola lehendik eta modu kronikoan egoera horretan zeudenentzat, hala bizitegi-bazterketa larriko egoera jasateko arriskuan zeudenentzat eta krisi soziosanitarioak egoera horretara

²¹ 2020rako eskura dagoen informazioaren arabera, esan daiteke, era berean, 2020ko maiatzaren hasierako salbuespen-egoeran ere 50 pertsona aurkitu zituztela kalean gauez zenbaketa egiten parte hartu zuten eta hiriburuak ez ziren 16 udalerrietan.

²² EUSTAT. Etxerik gabeko pertsonentzako baliabideen estatistika. 2020. Eskuragarri hemen: https://eu.eustat.eus/elementos/ele0019000/ti_2020an-pandemiaren-urtean-euskal-aeo-etxegabeentzako-zentroetan-egunero-arreta-jaso-zuen-pertsona-kopurua-2018koa-baino--165-handiagoa-izan-zen/not0019069_e.html

²³ Adibide gisa, Caritasen kanpaina jartzen da: NADIE SIN HOGAR: la vivienda como derecho humano <https://www.caritas.es/campanas/nadie-sin-hogar/> Interesgarria da Sos Arrazakeria erakundearen azterketa hau: "Euskadi ¿tierra de acogida? Políticas institucionales y redes de acogida". Eskuragarri hemen: <http://www.mugak.eu/news/euskadi-tierra-de-acogida-politicas-institucionales-y-redes-de-acogida>

²⁴ Ikusi Nazio Batzuen Garapenerako Programen (UNPD) urteko txostenak. 2020. urtea: <https://annualreport.undp.org/es/>

²⁵ Ikusi: <https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-salbuespenezko-neurrien-araudia/web01-a2korona/eu/>

eraman eta gizarte-bazterketako egoeran eta bizitegi-bazterketa izateko arriskuan daudenentzat. Horrek guztiak areagotu egin du egoera horretan dauden pertsonen kopurua, tokiko mailan nahiz estatu- eta nazioarte-mailan egin diren txostenek eta azterketek erakusten dutenez.

Caritasen txosten baten arabera²⁶, COVID-19ak izan duen inpaktuaren ondorioz, agerian geratu dira bat-batean gertatu diren bizitegi-bazterketako zenbait errealitate:

- Zaintzaile-lanetan, etxeko langile eta abar aritzen ziren eta lanpostua eta bizitokia galdu dituzten emakumeak.
- Ezkutuko ekonomiako jarduerak gauzatzen dituzten eta konfinamenduarekin beren jarduera gauzatu ezin izan duten eta diru-sarrerak eta bizitokia galdu dituzten pertsonak.
- Prostituzioan aritzen ziren eta ostatu hartzen zuten klub edo etxeetatik bota dituzten emakumeak.
- Bizitoki prekarioa duten pertsonak: alokairu-kontraturik ez dutenak, jende askorekin pilatuta bizi direnak, COVID-19aren ondorioz itxi dituzten pentsio edo ostatueta bizi zirenak eta jabeak beren bizilekuetatik kanporatu dituenen babesik gabe geratu direnak, etab.

2.3. Azken urte honetan, zalantzarik gabe, erabaki garrantzitsuak hartu dira COVID-19ak eragindako egoerari erantzuteko etxebizitza bat izateak duen garrantziaren inguruan. Erabaki horien artean, nabarmentzekoak dira hasieratik Errelatore Bereziak zabaldu zituenak etxebizitza egokia izatearen alde, eta Nazio Batuetako Batzar Nagusiak onetsitako jarraibideak, non proposamenak egiten baitira gizarte-zailtasuneko zenbait esparrutan, hala nola etxerik gabeko pertsonen esparruan²⁷.

1948ko abenduaren 10eko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak (25.1. artikulua), 1966ko abenduaren 16ko Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunak (11.1. artikulua) eta Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak (34.3. artikulua) azpimarratu izan dute etxebizitzak alderdi soziala duela, pertsonen eta beren familien bizi-baldintzak hobetzen dituelako.

Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluko Ekonomia, Gizarte eta Kultura Batzordeak (aurrerantzean EGK Batzordea), **2017ko ekainaren 20ko irizpenean** (behin betiko bertsioa: 2017ko uztailaren 21a), gomendio orokorrak egin zituen, botere publikoei zuzenduta. Zehazki, aipatutako irizpenak beharrian hauek planteatzen ditu: "behar diren neurri guztiak hartzea, ziurtatzeko ordezko

²⁶ CARITAS. *Las personas en situación de sin hogar acompañadas por Cáritas. Contexto en 2019 y durante el estado de alarma y la COVID-19.* Eskuragarri hemen: <https://caritas-web.s3.amazonaws.com/main-files/uploads/2020/10/C%C3%81RITASestudios-e-investigaciones-22-web-.pdf>

²⁷ NAZIO BATUAK. *Nota orientativa sobre COVID-19. Proteger a las personas en situación de sinhogarismo* Leilani Farha, etxebizitza egokia izateko eskubideari buruzko errelatore berezia. 2020ko apirilaren 28an eguneratua. Eskuragarri hemen: https://www.ohchr.org/Documents/Issues/Housing/SR_housing_COVID-19_guidance_homeless_sp.pdf

etxebizitza bat eskuratzeko egiten diren baliabiderik gabeko pertsonen kaleratzeak pertsona horiei egiazko eta benetako kontsulta bat egin ostean eta Estatu parteak ezinbesteko urrats guztiak egin ondoren soilik gauzatuko direla, erabilgarri dauden baliabide guztiak erabiltzeraino, etxetik kaleratutako pertsonak ordezkotza etxebizitza bat izan dezaten, bereziki familiak, adineko pertsonak, haurrak edota zaugarritasun-egoeran dauden pertsonak barne hartzen dituzten egoeretan".

lido horretatik, 2021eko otsailaren 18an, aipaturiko EESK Batzordeak beste irizpen bat onartu zuen eta ondorioztatu zuen etxebizitza duin bat eskaini barik behartuta etxegabeteak Eskubide Ekonomikoen, Sozialen eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 1. paragrafoaren 11. artikuluan jasotako eskubidea urratzen duela. Aurreko irizpenetan aipaturiko gomendioak errepikatuz, honen beharra azpimarratu du EGK kontseiluak: "behar diren neurri guztiak hartzea, ziurtatzeko, Estatu parteak berehala ordezkotza etxebizitza egoki bat eman ezin badu eta aldi baterako bizileku bat eskaini behar badu, bizileku horrek duintasun- eta segurtasun-estandarrek betetzen dituela. Hala, Estatu parteak bermatu behar du aldi baterako bizilekua etxebizitza egoki bat izan aurreko urratsa den arren han biziko diren pertsonak nolabaiteko egonkortasuna izango dutela, aldi baterako izan arren; bereziki, familiak, adineko pertsonak, haurrak edota egoera zaugarrian dauden bestelako pertsonak direnean".

Nazio Batuetako Batzar Nagusiak²⁸ 2020an onartu zituen bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa etxebizitza egoki bat edukitzeko eskubidea aplikatzeko gidalerroak. 1. gidaleroan, proposatzen da etxebizitza bat izateko eskubidea duintasuna izateko eta bizitzeko eskubideari lotutako funtsezko eskubidetzat bermatzea. Adierazten da oinarritzko giza eskubidetzat aintzatetsia izan dela, giza eskubideen oinarritzko balioetatik bereizi ezin delako, hala nola duintasunetik, berdintasunetik, inklusiotik, ongizatatetik, pertsonaren segurtasunetik eta parte-hartze publikotik.

Nazio Batuen arabera, etxebizitzarik ez izateak bizitza duina izateko eskubidea urratzen du eta beste giza eskubide batzuei ere eragiten die, hala nola bazterketarik ez jasateko eskubideari, osasunerako eskubideari, ura eta saneamendua izateko eskubideari eta pertsonaren segurtasunerako eta tratu krudel, iraingarri eta ankerrik ez jasateko eskubideari.

EGK Batzordeak ulertzen duen gisa berean, etxebizitza bat izateko eskubidea ez da interpretatu behar bizitoki bat izateko eskubide soil gisa, hau da, lo egiteko leku bat izateko eskubide gisa, baizik eta pertsonaren duintasunarekin lotutako eskubide gisa; horregatik, ez dira aski etxebizitzak sustatzeko programak edo giza eskubideen balioei eta manamenduei dagokien politika sozioekonomiko bakartu bat, kontu ematen ez duena eta justiziara jotzeko aukerarik ematen ez duena. Etxebizitza bat izateko eskubidea gizakiak berezko duen duintasunarekin erlazionatuta ulertu behar da, eta etxe batean bakean, seguru eta duintasunez bizitzeko eskubide gisa definitu behar litzateke; halaber, zenbait baldintza bete

²⁸ NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA. Bizi-maila egokia edukitzeko eskubidearen eta eskubide horrekiko bereizkeria ez jasateko eskubidearen elementu integratzaile gisa etxebizitza egoki bat edukitzeko eskubidea aplikatzeko gidalerroak. 43. biltzar-aldian onartuak, 2020ko otsailaren 24tik martxoaren 20ra bitartean. Eskuragarri hemen: <https://www.undocs.org/es/A/HRC/43/43>

beharko lituzke, hala nola etxebizitza hori edukitzeak ematen duen segurtasuna, zerbitzuak eskuragarri izatea, jasateko moduko gastuak izatea, bizigarritasuna, eskuragarritasuna, kokapen egokia izatea eta kultura-egokitasuna²⁹.

Ikusmolde-aldaketa horrek barne hartzen ditu botere publiko guztiak eta, nagusiki, departamentua eta etxebizitza-alarreko beste arlo eskudun batzuk. Beste arlo edo departamentu batzuen eta beste administrazio publiko batzuen parte-hartzea, nagusiki etxebizitza-alarrean eskumena duten haiena, erabakigarria da etxegabetasunari erantzun egokia emateko.

Europako Kontseiluak ere jarraibide batzuk zehaztu zituen 2021eko maiatzean³⁰; jarraibide horietan, zenbait babes-neurri gomendatzen ditu talde ahulentzat. Gida hori osasun-krisiei aurre egiteko landu da, baina baditu beste jarraibide batzuk ere, antzeko krisietan berdintasunari eusteko eta bazterketaren eta gorrotoaren kontra babesteko. Estatu kideek bidali zitzaien galdetegiari erantzuteko helarazi duten informazioa aztertzen du eta "COVID-19 (An [analysis of the anti-discrimination, diversity and inclusion dimensions in Council of Europe member States](#)³¹) azterketa du oinarri. Haren helburua da Estatu kideei tresna bat eskaintzea antzeko egoeretan berdintasunari eusteko eta bazterketaren kontra babesteko. Azterketa hori aipatzen da, neurri egokiak eskatzen dituelako talde zaurgarrietako pertsonen etxegabetasun-egoerak saihesteko, pertsona horiek arrisku handiagoa baitute bizilekua galtzeko.

Europar Batasunaren (EB) esparruan, geroz eta handiagoa da kezka. Eskubide sozialen Europako Zutabearen barruan, 19. printzipioak etxebizitza soziala izateko eta etxebizitza-arloan kalitateko laguntza jasotzeko beharra azpimarratzen du, baita pertsona zaurgarriek ezinbesteko kaleratzeen kontrako laguntza egokia eta babesa jasotzeko duten eskubidea eta etxerik gabeko pertsonen bizileku egokiak eta zerbitzuak eskaintzeko beharra ere.

Duela gutxi, Europako Parlamentuak 2020/2802 [Ebazpena](#) landu du, azaroaren 24koa, Europar Batasunean etxerik gabeko pertsonen ehunekoen gaiari heltzeko moduari buruzkoa³². Ebazpen horretan, Europako Parlamentuak bere kezka adierazi zuen Europan lau milioi herritar baino gehiago daudelako etxerik gabe, eta etxerik gabe geroz eta pertsona gehiago egoteko arrazoiaren artean aipatu zituen etxebizitzaren kostuaren igoera, krisi ekonomikoaren inpaktua, gizarte-babesa murriztu izana eta Estatu kide askotan etxerik gabeko pertsonen egoera lantzeko behar beste politika ez izatea. Azpimarratzen du 2020ko bigarren hiruhilekoan etxebizitzaren prezioak % 5 egin zuela gora EA-19 Eurogunean, eta % 5,2 EU-27 gunean, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta.

²⁹ NAZIO BATUEN BATZAR NAGUSIA. Lehenengo gidalerroa. op.cit.

³⁰ EUROPAKO KONTSEILUA. *Guidelines of the Committee of Ministers of the Council of Europe on upholding equality and protecting against discrimination and hate during the Covid-19 pandemic and similar crises in the future*, 2021. Eskuragarri hemen: <https://edoc.coe.int/fr/vivre-ensemble-diversite-et-liberte-en-europe/9745-guidelines-of-the-committee-of-ministers-of-the-council-of-europe-on-upholding-equality-and-protecting-against-discrimination-and-hate-during-the-covid-19-pandemic-and-similar-crises-in-the-future.html>

³¹ EUROPAKO KONTSEILUA. *COVID-19: an analysis of the anti-discrimination, diversity and inclusion dimensions in Council of Europe member States*, 2021. Eskuragarri hemen: <https://edoc.coe.int/fr/vivre-ensemble-diversite-et-liberte-en-europe/9741-covid-19-an-analysis-of-the-anti-discrimination-diversity-and-inclusion-dimensions-in-council-of-europe-member-states.html>

³² EUROPAKO PARLAMENTUA. ·Europako Parlamentuaren 2020/2802 Ebazpena, azaroaren 24koa, Europar Batasunean etxerik gabeko pertsonen ehunekoen gaiari heltzeko moduari buruzkoa (2020/2802(RSP)). Eskuragarri hemen: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2020-0314_ES.html

Europako Parlamentuak nabarmentzen du etxebizitzarik ez izatea dela pobrezia- eta gabezia-motarik larrienetako bat, zeina ezabatu egin behar baita politika espezifiko eta integratuen bidez, politika horiek modu jasangarrian gauzatuta arrisku-faktore pertsonalak (banakoen zaugarritasuna, adibidez) eta egiturari dagozkion arrisku-faktoreak (esate baterako, etxebizitza eta langabezia) kontuan hartuta. Era berean, zenbait gomendio egiten ditu etxerik gabeko pertsonentzako eta zerbitzu publikoetarako sarbidean berdintasuna izateko koordinazioari, informazioari eta estrategia nazionalak hartzeari buruz, hala nola osasun-arreta, hezkuntza eta gizarte-zerbitzuak, eta lan-merkatuan integratzeko laguntza-neurriei, enplegu- eta prestakuntza-programa integratuei edo etxerik gabeko gazteen arazoa Gazte Bermean lantzeari buruz. Europako Parlamentuak honako hau azpimarratzen du: "...etxerik gabeko pertsonak eta bizileku-prekarietatean dauden beste pertsona batzuek arrisku berezi dute COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioz, eta arren eskatzen diete Europar Batasunari eta Estatu kideei neurri espezifikoak ezar ditzatela etxerik gabeko pertsonak babesteko eta GKE ziurtatuei eta elkarte publiko-pribatuei laguntza finantzarioa emateko, eta tokiko agintaritzei lagundu diezaietela espazio seguruak ziurtatzen eta kaleratzeak saihesten".

Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko Ebazpena³³, guztientzako etxebizitza duin eta eskuragarri bat izateari buruzkoa, oso interesgarria da barne hartzen dituen proposamenengatik eta kontsiderazioengatik, zeinak lehen adierazitako ildo beretik baitoaz; hala, "etxebizitza egoki bat eskuratzeko aukera oinarrizko eskubide bat da eta oinarrizko gainerako eskubideak eta bizitza duina gauzatzeko eta eskuratzeko aurretiazko baldintzat hartu behar da. Horretarako, kontuan izan behar da Estatu kideetako agintari nazionalak, eskualdekoak eta tokikoak beren etxebizitza-politika zehaztu behar dutela eta beren etxebizitza-merkatuetan oinarrizko eskubide hori babesten dela bermatzeko behar diren neurriak hartu behar dituztela".

Etxebizitza duina eskuratzeko Europako Batzordeari egindako eskaera asko ditu, baita eskaera espezifikoagoak ere, etxerik gabeko pertsonen arazoaren eta bazterketaren kontrako borrokari buruzkoak, hala nola neurri eraginkorragoak hartzea Estatu kideei laguntzeko etxerik gabeko pertsonen arazoa murrizten eta ezabatzen, Eskubide Sozialen Europako Zutabeko ekintza-planaren testuinguruan. Halaber, Batzordeari eskatzen dio Batasunean esparru bat proposa dezala etxerik gabeko pertsonentzako eta "Housing First" printzipioa baliatzen duten Estatu kideentzako estrategia nazionalentzat, eta lehentasuna eman diezaiotela etxerik gabeko pertsonen etxebizitza iraunkorrak emateari, neurri proaktiboak eta erreaktiboak bidez etxerik gabeko pertsonentzako estrategia nazionalen esparruan, oinarri hartuta etxegabetasunaren, pobrezia- eta bazterketaren arloan lanean aritzen diren GKEen kontsulta sistemikoa.

Beste gai eta neurri batzuen artean, adierazi du Batzordeak orain arrakasta duten neurriak ezartzeko aukera aztertu behar duela, hala nola "Housing First" proiektua, finantziazio-tresna egokien bidez; esate baterako, Europako Plus Gizarte Funtza eta Eskualde Garapenerako Europako Funtza.

³³ EUROPAKO PARLAMENTUA. Ebazpena, Europako Parlamentuarena, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, guztientzako etxebizitza duina eta eskuragarria lortzeari buruzkoa (2019/2187(INI)). Eskuragarri hemen: https://www.europarl.europa.eu/doceo/document/TA-9-2021-0020_ES.html

Europako Parlamentuak ministerioen, gobernuen eta beste alde batzuen arteko lankidetzaren garrantzia aipatzen du, baita Estatu kideen artean jardunbide egokienak trukatzearen garrantzia, esparru partekatu bat, adierazle koherenteak eta konparazio sistemikoa egiteko aukera emango duten datuen bilketaren beharra, gazteei eta beste talde ahul batzuei (adibidez, etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak, pobrezia-egoeran dauden haurrak, egonlekuetan bizi-baldintza prekarioetan bizi diren ijitoak edo etxerik gabeko pertsonak) zuzendutako neurrien beharra eta abar. Era berean, adierazi du COVID-19ak eragindako krisian etxerik gabeko pertsonen arazoa prebenitzeko eta pertsona horiek babesteko aparteko neurriak behar direla, bereziki, etxegabetezuei eta argindarra eteteari buruzko luzamenduen bidez, eta aldi baterako etxebizitzak behar beste denbora iraun dezala eta soluzio egoki eta iraunkorren jarraipena egin dadila, eta, azkenik, Estatu kideei eskatzen die babestu eta sustatu ditzatela etxerik gabeko pertsonen osasun-zerbitzuak ematen dizkieten eta COVID-19tik babesten laguntzen dieten gobernuz kanpoko eta ongintzako erakundeak.

Ebazpenak alderdi asko jasotzen ditu, ez ditu albora uzten genero-ikuspegiaren beharra edo gorroto-delituei eta aporofobiak eragindako gorabeherari jarraipen estuagoa egitearen garrantzia, eta Estatu kideei eskatzen die mekanismoak ezar ditzatela beren politika publikoetan etxerik gabeko pertsonen segurtasuna bermatzeko, eta aporofobia gorroto-delitu gisa sar dezatela segurtasun publikoko politiketan.

Orobat, nabarmentzen da Europako Parlamentuak Batzordeari eta Estatu kideei egindako eskaera, etxerik ez izateak edo etxebizitzarekin lotutako beste arazoiren batek eragindako bazterketa debekatu dezaten eta horri aurre egin diezaioten, eta indargabetu ditzaten etxerik ez duten pertsonak edo etxerik ez izatearekin erlazionatzen diren portaerak, hala nola espazio publikoetan lo egitea edo jatea, kriminalizatzen edo zigortzen dituzten lege eta neurri guztiak, baldin eta ez bazaie ostatu-aukera segururik eskaintzen, eta debekatu dezatela haien ondasun pertsonalak suntsitzea; hain zuzen, bi gai horiek interesgarriztat jotzen dira Arartekoaren aurrean aurkeztutako kexak kontuan hartzeko.

Europako Parlamentuaren bi ebazpenek proposamen garrantzitsuak egiten dizkiete Batzordeari eta Estatu kideei. Zalantzarik gabe, proposatutako neurriak ezartzeak etxerik gabeko pertsonen egoera hobetzeko aukera emango luke, haien aniztasunean.

Azkenik, 2021. urtean sendotu egin da Europar Batasunean etxegabetasunari aurre egiteko konpromisoa, 2021eko ekainaren 21ean Lisboan egin zen "Etxegabetasunari aurre egiteko Europako plataforma bat abian jartzea" goimailako [biltzarrean](#); biltzar hori EBko erakundeen, Estatu kideetako gobernuen eta gizarte-erakundeen artean egin zen, eta plataforma bat abian jarri zen, eragile sozial eta publikoen artean lankidetzari ekiteko etxegabetasuna desagerrarazteko diagnostikoak, ezagutza eta jardunbide egokiak partekatu ahal izateko.

Biltzar horretan adostu zen [Lisboako adierazpenak](#) jasotzen ditu Etxegabetasunari aurre egiteko eta hura 2030erako desagerrarazteko Europako Plataforma abian jartzeko konpromisoak. Aldaketa garrantzitsua da, etxegabetasunaren kausatzat aintzatesten baitira etxebizitzaren prezio geroz eta altuagoa, babes publikoko behar

beste etxebizitza ez egotea, diru-sarrera txikiak eta lan prekarioa, familia-loturak haustea, bazterketa, osasun-arazo kronikoak edo egoitza-zentroetatik edo espetxetik irtetea.

Proposatzen dituen erronken artean, hauek aipatuko ditugu: ez egotea bizileku irisgarri, seguru eta egokirik izan ezin duen pertsonarik; inor ez bizitzea larrialdiko edo aldi baterako bizileku batean behar baino denbora gehiagoz, bizilekuari dagokion erantzun egonkorragoa eman ahal izateko; inor ez dadila irten zentro batetik (espetxea, osasun-zentro bat edo gizarte-arretako zentro bat) bizileku egokirik izan gabe; ahal den heinean, etxegabetzeak saihestea eta, nolana ere, laguntza eskaintzea bizileku egokia izateko beharrari erantzuteko; eta, azkenik, ez dadila inongo bazterketarik izan etxegabetasun-egoera dela eta.

Helburu horiek lortzeko, zenbait konpromiso hartu zituzten Batzordeak, Europako Parlamentuak, agintari nazionalak, eskualdekoek nahiz tokikoek eta erakunde eta eragile sozialek. Agintari nazionalak, eskualdekoek eta tokikoek dagokienez, konpromisoa hartu zuten etxegabetasuna prebenitzeko, bizileku egonkor baterako sarbidea errazteko eta etxerik gabeko pertsonen laguntza-zerbitzua eskaintzeko. Horretarako, behar diren politika publikoak diseinatu eta garatu behar dituzte, eta finantziarioa eman, kontuan harturik, gainera, etxegabetasuna murrizten lagundu dezaketen Europako funtsen aurreikuspenak³⁴. Azkenik, etxegabetasunari aurre egiten laguntzen duten jardunbide egokiak partekatzea proposatzen da.

Parte hartu zuten eragile eta erakunde sozialek konpromisoa hartu zuten Plataforma babesteko eta kideei etxegabetasunari aurre egiteko ahaleginean laguntzeko, baita elkarrekiko ikaskuntza errazteko eta etxegabetasunari aurre egin ahal izateko urratsik onenak egiteko ebidentziarik onenak garatzeko ere.

Adierazpen horrek etxegabetasunaren prebentzioaren eta hari aurre egiteko formulen garrantzia azpimarratzen du, "Housing-Led" deritzonarena, adibidez.

2.4. Estatu mailan, Etxerik gabeko pertsonentzako Estrategia Nazional Integrala 2015-2020³⁵ aipatu behar dugu. Espainiako Gobernuak etxerik gabeko pertsonen egoerari erantzuteko eta esku hartzeko esparru integral bat sortzeko proposatu zuen tresna bat da. Estrategia horrek zenbait esku-hartze proposatzen ditu, eta esku-hartze horiek ezartzea esparru komun bat da lurralde mailako ekintza estrategikorako, konpromisorako eta lidergo publikorako. Autonomia-erkidegoek, tokiko erakundeek eta Hirugarren sektoreko erakundeek ikuspegia, metodoa eta ekintzak partekatzen eta lankidetzan gauzatzen dituzte³⁶.

Bost helburutan egituratzen da:

³⁴ Prebentziorako eta etxebizitzetarako sarbidea izateko politika publikoek lagunduko dietela aurreikusten den Europako funtsen (European Structural and Investment Funds and Invest EU (2021-2027)) garrantzia.

³⁵ Etxerik gabeko pertsonentzako Estrategia Nazional Integrala 2015-2020, Ministro Kontseiluaren akordio bidez onartua 2015eko azaroaren 6an. Eskuragarri hemen: <https://www.msbs.gob.es/ssi/familiasInfancia/ServiciosSociales/docs/EstrategiaPSH20152020.pdf>

³⁶ Beste tresna interesgarri bat Pobrezia eta gizarte-bazterketa prebenitzeko eta haien aurre egiteko Estrategia Nazionala (2019-2023) da; estrategia horretan, etxegabetasuna prebenitzeko eta hari aurre egiteko politika bat eratzea proposatzen da. Eskuragarri hemen: <https://www.mdsocialesa2030.gob.es/derechos-sociales/inclusion/inclusion-social-espana.htm>

1. etxegabetasuna prebenitzea, gizartea sentsibilizatzea eta etxerik gabeko pertsonen bazterketaren eta haien kontrako gorroto-delituen aurkako babesa ematea;
2. etxerik gabeko pertsonen bizi-segurtasuna bermatzea;
3. bizi-proiektua berrezartzea;
4. etxerik gabeko pertsonen arretarako sistema publikoa indartzea; eta
5. ezagutza, informazio-trukea eta ebaluazioa hobetzea; haietatik zenbait ildo estrategiko sortzen dira, eta bakoitzak esku hartzeko zenbait proposamen ditu.

Bitarteko ebaluazio bat egin da³⁷. Ebaluazio horretan, ildo estrategikoekiko bat-etortzea aztertu da, baita zeharkako printzipioak, adierazleen integrazioa edo Estrategiaren ezartze-maila ere, zeina Euskadin altuena baita.

Euskadin EGPEE 2018-2020 estrategia landu zen etxegabetasunaren arazoari heltzeko. Estrategiak kontuan hartu zituen 185/2015 Dekretua, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio-zorroari eta zerbitzuei buruzkoa, aipatu ditugun diagnostikoak eta EBk etxegabetasuna prebenitzeko eta lantzeko egindako gomendioak. Bitarteko ebaluazio bat egin da eta azken ebaluazioa egiteko eta eguneratzeko zain dago.

Era berean, Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoak ere bere ebaluazioa³⁸ du; beraz, jakin ahal izan da zenbateraino dagoen hedatua gizarte-zerbitzuen euskal sistema eta zenbat aurreratu duen Sistemaren unibertsalizazioan.

Ebaluazio horren arabera, bazterketaren esparrua plaza-kopuruak gora egin duen bigarren esparrua da 2011tik 2018ra bitarteko aldian. Hala, 2018an zeuden plazetatik, % 41,95 erantzukizun publikoko plaza gisa sortu edo finkatu dira 2011tik 2018ra bitartean, eta hori aurrerapen garrantzitsua izan da, bazterketa-sareak beste sare batzuek (babesgabetasunarena, desgaitasunarena edo adineko pertsonena) baino garapen-maila txikiagoa baitzuen hasieran. Ebaluazioak erakusten du aurrerapen bat izan dela, baina gogorarazten du arreta handiago eskaini behar zaiola. Historikoki lauretan garapenik txikiena izan duena izanik, azaltzen du aurrerapen garrantzitsua egin dela zerbitzuen sustapenean, bereziki bigarren mailako arretako eguneko zerbitzuetan eta gaueko harrerakoetan, eta nolabaiteko aurrerapena egin dela sarea lurraldean hedatzen ere.

Ebaluazioak adierazten du datuek aurrerapen bat erakusten dutela haren finkatzean gastu publikoari dagokionez, zeinak aurreikuspenak gainditu baititu, baita erantzukizun publikoaren argitzeari dagokionez ere.

Bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako eguneko arreta-zerbitzua (1.7.2) hazi egin da Bizkaian eta Gipuzkoan 2011. urteaz geroztik. Arabak aurreikuspenetatik behera jarraitzen du; beraz, plazak ez ditu nabarmen areagotu. Gipuzkoa ere

³⁷ LURRALDE-POLITIKAKO ETA FUNTZIO PUBLIKOKO MINISTERIOA. *Evaluación intermedia de la Estrategia Nacional Integral para personas sin hogar*, (2015-2020) Eskuragarri hemen: https://www.mptfp.gob.es/dam/es/portal/funcionpublica/evaluacion-politicas-publicas/Informes-de-Evaluacion/3-ANEXOS-EVA-ENI-PSH_PROTEGIDO.pdf

³⁸ EUSKO JAURLARITZAREN BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA. *Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoari buruzko ebaluazioa*. Eskuragarri hemen: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/planes_ss/eu_planes/adjuntos/PLAN%20ESTRATEGICO%202016-2019%20EUSK.pdf

aurreikuspenetatik behera dago. Gaueko harrera-zerbitzuak gora egin du Bizkaian, baina Gipuzkoan aurreikuspenetatik behera jarraitzen du. Ebaluazioak, halaber, erakusten du aurrerapen bat egin dela ostatu/abegi-etxeen zerbitzuetan (1.9.1) eta bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzako ostatu/babespeko etxebizitzetan (1.9.2). Gizarte-inklusioari dagozkion beharrei erantzuteko zerbitzuak edo eguneko zentroak (2.2.3) ere bilakaera bat izan du hiru lurraldeetan; Arabaren kasuan, 2016rako egin zen aurreikuspenetik beherakoa izan da bilakaera hori.

Gizarte-inklusioari dagozkion beharrei erantzuteko gaueko abegi-zentroari dagokionez (2.3.2.), ez du bilakaera handia izan, eta Araban eta Gipuzkoan hutsetik abiatu zen 2011n. Bazterketa- edo marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroei dagokienez (2.4.5), bilakaerak gora egin duen arren, oraindik ere ez daude behar beste eta aurreikusitakoa baino gutxiago dira, bereziki Araban, baita pixka bat Gipuzkoan ere; Bizkaian hobea da egoera, emandako laguntza ekonomikoak kontuan hartzen badira.

Ebaluazioak erakusten du hausnartu beharra dagoela bazterketa-sarearen, lehen eta bigarren mailako arretako lankidetzaren, haien deszentralizazioaren eta lurralde historiko bakoitzean egoera desberdina izatearen inguruan.

Era berean, interesgarria da ebaluazioak hauteman dituen zailtasunak adieraztea, hala nola hauek:

- Administrazio publikoen eta erakunde pribatuen arteko lankidetzarako protokoloen edo akordioen beharra, erakunde horiek parte har dezaten kasu bakoitzeko eta lehen mailako arretaren eta bigarren mailako arretaren arteko erreferentzia-funtzioetan eta koordinazioan, batera arreta eskaintzeko eta kasuak bideratzeko.
- Gizarte Zerbitzuei buruzko Euskal Informazio Sistema garatzea eta plangintza jarraitua egitea, beharren bilakaerari, laguntza-sare formalari eta informalarri, gastuei eta diru-sarrerari buruzko aldizkako datuak oinarri hartuta.
- Ebaluaziorako eta arretaren kalitatea etengabe hobetzeko eredu komunak sustatzea, baita Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako zerbitzuetan kalitate-sistemak ezartzeko laguntza teknikoko programak eta kudeaketarako kalitate-adierazleen katalogo adostu bat ere; adierazle horiek aukera emango dute Sistemari parte hartzen duten eragileek betetze-maila baloratzeko.
- Hitzarmen soziosanitarioak eta koordinazio soziosanitarioko beste alderdi batzuk (lankidetzaren protokoloak, ekimen eta zerbitzu partekatuak, etxeko arreta-programak eta kasu soziosanitarioen koordinazioa) berrikustea eta eguneratzea. Hala, talde-laneko, kasuen koordinazioko eta talde espezifikoari ematen zaien arretako ekimenak sustatzen jarraitu behar da; talde espezifiko horien artean daude, besteak beste, gaixotasun mentalak eta jokabide-arazoak dituzten adingabeak. Gainera, aurrera jarraitu behar da lurralde-koordinazioa eta informazio-sistema soziosanitarioa egituratzeko, zerbitzu soziosanitarioen zorroa onartzeko eta osasun-prestazioak eta plaza soziosanitarioak finantzatzeko eredu bateratua egituratzeko prozesuan.

- Gizarte- eta lan-arloan, abian jarri behar dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren arteko koordinazio- eta lankidetzaren iraupenak, zeinek barne hartu behar baitituzte gizarte-inklusionarako laguntza behar duten pertsonentzako arreta-sistema bakoitzean funtzioak aktibatzen eta argitzeko eredu partekatua, eraginkor eta justu bat; koordinaziorako eta lankidetzarako moduak eta protokoloak; eta bi sistementzako eta gizarte- eta egoitza-arazoetarako garrantzitsua den informazioaren kudeaketa partekatua (lankidetzaren protokoloak edo -akordioak edota ekimen edo zerbitzu partekatuek, etxebizitza bat eskuratzea errazteko).
- Ahalegin handiagoa eskatzen da bazterketaren esparruko arauen garapenean, esparru horrek baitu arauen garapen-mailarik txikiena.
- Pertsona helduen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna bat diseinatu behar da.
- Azkenik, zerbitzuak emateko baldintza zehatzagoen falta sentitzen dute udalek, hala nola beharrezko kudeaketa-egitura bat, sarbide-sistemak, esku hartzeko ereduak, eta abar.

Bazterketaren esparruko arreta-sarearen balorazioak agerian uzten ditu inpaktu handiko esku-hartzeak, hala nola Araban gizarte-bazterketaren baloraziorako zerbitzu espezializatu bat sortu izana; Bizkaiko arau-esparru berria, gizarte-bazterketaren esparruan esku-hartze espezializaturako prozedura arautzen duena (59/2019 Foru Dekretua); Gipuzkoan Gizarte Inklusionarako Elkar-EKIN (2016-2020) Plana onartzea; inklusionarako baliabideak areagotu izana; Debagoiena, Debarrena eta Bidasoarako baliabideen deszentralizazioan aurrerapenak egin izana; eta egoitza-baliabide berriak sortu eta antolatu izana, hala nola "Housing First", Donostiako Udalarekin elkarlanean. Udalek ere bazterketa-egoeran dauden pertsonentzako zerbitzuak sustatu dituzte, nola eguneko arretan, hala gauekoan, hotz egiten duenerako zerbitzuetan, etxegabetze-protokoloetan, gizarte-errolan eta laguntza ekonomikoetan.

Gizarte-zerbitzuetarako sarbidea –ohikoa eta premiazkoa– hobetu da, eta sistemako baliabideen baloraziorako, diagnostikorako, orientaziorako eta sarbiderako itzarote-denborak hobetu dira; gizarte-larrialdiko koordinazio-zerbitzua hedatu da hiru lurraldeetan, gizarte-larrialdiko udal-zerbitzuekin edo haien laguntzarekin; hitzarmenak eta protokoloak gauzatu dira, nola oinarrizko gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko (zenbait kasutan bideratzea eta esku hartzea), hala zentroetan sartzeko (plazak gordetzea).

Halaber, zenbait programa berritzaile jarri dira abian; adibidez, Hábitat Bizkaia eta, Gipuzkoan, Hábitat Housing First.

Maila orokoragoan, Planak barne hartzen zuen, bere lehentasunen artean, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Organoa sustatzea lankidetzarako eta koordinaziorako organismo instituzional kolegiatu gisa, euskal administrazio publikoen hiru mailen arteko lankidetzarako, eskaintza ezagutzeko aukera ematen duen plangintza eta ebaluazio jarraituko sistema bat abian jartzeko eta 12/2008 Legetik eratorritako kompetentzia-doikuntzarako (eta, hala badagokio, doikuntza ekonomikorako). Organo horrek funtzio garrantzitsuak bete ditu, hala nola Plana ebaluatzea;

horretarako, jarraipen-tresna bat diseinatu da, zeinak aukera eman baitu oinarritzko datuak izateko: plaza-kopurua, erabiltzaileak, estaldurak, gastu arrunt publikoa eta Planaren ekintzen egikaritze-maila.

Espazio soziosanitario bat ere garatu da³⁹. Gainera, 2021eko urrian Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2024 argitaratu da⁴⁰.

Ondorioen artean, ebaluazioak hauek azpimarratzen ditu: sarea sendotzen jarraitze beharra, zeina oraindik ere lau sareetan gutxien egituratutakoa baita; lurralde-oreka hobea lortzea baliabideen banaketan, hirietan gehiegi pilatzen baitira; eta kompetentzia-banaketa egokiagoa aztertzea udalen eta aldundien artean, inklusiorako arreta-"continuos" bat mantentzea errazteko, bi mailen artean koordinazio hobea izanda⁴¹.

Azkenik, azaltzen da beharrezkoa dela gizarte-bazterketako egoeran dauden eta beste kontingentzia edo egoera batzuk (mendekotasuna, desgaitasuna, gaixotasun mentala, kontsumoak, etab.) dituzten pertsonen arreta hobetzeko.

2.5. Bukatzeko, esan behar dugu Europako Gutun Soziala (berrikusia) sartu dela ordenamendu juridikoan, zeina Europako Kontseiluaren tresna arauemaile bat baita. Europako Gutun Soziala gizarte-eskubideen nazioarteko trataturik osoena da. 2021eko uztailaren 1ean sartu zen indarrean, Berreste Tresna argitaratu ostean⁴².

Horren arabera, aldeek konpromisoa hartzen dute pobrezia eta gizarte-bazterkeriaren aurkako babeserako eskubidea benetan gauzatzen dela bermatzeko neurriak hartzeko; etxebizitza duin bat eskuratzen laguntzeko; eta etxerik gabeko egoera prebenitu eta arintzeko, egoera hori pixkanaka ezabatze aldera.

Tresna arauemaile hori berresteak berekin ekarriko du Estatuak txosten bat egitea; txosten horrekin eta beste iturri batzuei egindako kontsultarekin, adituen

³⁹ Ebaluazioan aurrerapen hauek ikusi dira: hiru batzorde daude hiru lurraldeetan, eta lurraldeko koordinatzaile soziosanitario bat, gizarte- eta osasun-arloko koordinatzaile batekin. Era berean, 133/2018 Foru Dekretua, urriaren 16koa, onartu da. Haren bidez, Bizkaiko lurralde historikoko Batzorde Soziosanitarioa arautzen da, bi sistemen arteko baterako beste esku-hartze batzuen artean, lehentasun estrategikoak eta gobernantza soziosanitarioko eredu zehazteko; baliabide soziosanitarioen katalogo bat egin da, eta historia soziosanitarioan ere aurrerapenak egiten ari dira. Gainera, koordinazioa bultzatu da lehen mailako arreta soziosanitarioko taldeen eta kasu soziosanitarioen bidez, baita koordinazio-protokoloak eta etxean esku hartzeko eta babesgabetasun-egoeran dauden eta gaixotasun mentalak eta, bereziki, jokabide-arazoak dituzten adingabeak artatzeko programa pilotuak ere. Era berean, aurrerapenak egin dira komunikazioan (arreta soziosanitarioko ataria) eta hitzarmen soziosanitarioen berrikuspenean eta eguneratzean.

Aurrerapen-ildoek gobernantza, zorroa, finantziarioa eta berrikuntza dituzte ardatz. Hala, talde-laneko, kasuen koordinazioa eta talde espezifikoiei ematen zaien arretako ekimenak sustatzen jarraitu behar da; talde espezifiko horien artean daude, besteak beste, gaixotasun mentalak eta jokabide-arazoak dituzten adingabeak. Gainera, aurrera jarraitu behar da lurralde-koordinazioa eta informazio-sistema soziosanitarioa egituratzeko, zerbitzu soziosanitarioen zorroa onartzeko eta osasun-prestazioak eta plaza soziosanitarioak finantzatzeko eredu bateratua egituratzeko prozesuan.

⁴⁰ ARRETA SOZIOSANITARIOKO EUSKAL KONTSEILUA. *Euskadiko Arreta Soziosanitarioko Estrategia 2021-2023* Eskuragarri hemen:

https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/doc_sosa_soziosanitario_estrat/eu_def/adjuntos/estrategia_sociosanitaria_187x280_eu_web.pdf

⁴¹ Ebaluazioan aurreratzen da hiru aldundiak lanean ari direla gizarte-bazterketaren arloan bigarren mailako arretan esku hartzeko eredu adosteko.

⁴² 1980ko apirilaren 29ko Berreste Tresna, Europako Gutun Sozialarena, Turinen egina 1961eko urriaren 18an. Eskuragarri hemen: <https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1980-13567>

Batzordeak azken ondorio batzuk landuko ditu Gutuneko xedapenen betetze-mailari buruz. Gobernu arteko Gizarte Batzordeak xedapen horiek aztertuko ditu eta txosten bat prestatuko du zenbait ondoriorekin; ondorio horien arabera, litekeena da Ministroen Batzordeak estatuari zenbait gomendio egitea. Gerta liteke, halaber, gobernuz kanpoko erakundeek erreklamazio kolektiboak aurkeztea haien iritziz aplikatu ez diren Gutuneko xedapenak direla eta⁴³. Aukera horrek erreklamazioak egiteko aukera berriak zabaltzen dizkie gizarte-taldee, Gutun Sozialaren edukia (berrikusia) kontuan hartuta eta Estatuak beren berrestearekin hartutako konpromisoak direla-eta Batzordeak alde aurretik hartu dituen erabakiei dagokienez⁴⁴.

Azken batean, azterketarekiko interesa eta etxegabetasunari aurre egiteko landu diren estrategiak, gomendioak eta ekintzak areagotu egin dira azken urteetan, etxerik gabeko pertsonen kopurua bezala. COVID-19ak eragindako osasun- eta gizarte-krisiak agerian utzi du hausnarketa sakon bat premia egiteko beharra, gizarte- eta bizitegi-bazterketako egoerak areagotzen eta betikotzen dituzten arazoak nabarmentzeko eta haiek desagerraraziko dituzten neurriak abian jartzea bizkortzeko. Gainera, nabarmendu da emakumeen egoera eta ibilbidea desberdinak direla eta genero-faktoreek oso markatuak dituztela, zenbait azterlanetan aztertu denez⁴⁵; hori dela eta, ezinbestekoa da genero-ikuspegia sartzea.

Egoera horiei erantzun ahal izateko, Euskadik esparru juridiko bat (Gizarte Zerbitzuen Legea, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea, Etxebizitza Legea, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko dekretua...) eta plan sektorialak ditu (gizarte-zerbitzuen plan estrategikoa, etxebizitza-plan zuzentzailea, gizarte-inklusioko plana), baita Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren eta EGPEE strategiaren ebaluazioa ere⁴⁶. Gogoratu behar da gizarte-kohesioa ez ezik, arriskuan dagoela gizarte-errespetua ere, zeina ezin baita mantendu pertsonak gure kaleetan abandonatuta dauden bitartean, tratu iraingarriak edo indarkeria jasateko arriskuan, bizitza arriskuan dutela, osasun fisikoa eta mentala bizkor hondatzen ari zaien prozesu batean murgilduta.

3. Administrazio publikoek emandako erantzunen edukiaren laburpena

Jarraipenaren xede den Gomendio Orokorra arreta jarri zuen oso kaltebera den kolektibo batean: etxerik gabeko pertsonengan. Kolektibo horri neurri espezifikoak

⁴³ Ebazpen honen xedearekin duen erlazioa dela eta, Holandan etxerik gabeko pertsonentzat ostatuak banatzeko moduari buruz FEANTSAk (etxerik gabeko pertsonekin lan egiten duten Erakunde Nazionalen Europako Federazioa) aurkeztu zuen erreklamazioari buruz Batzordeak hartu zuen erabakia aipatzen da. Batzordeak ulertu zuen ez zirela betetzen Gutuneko 30, 31.2, 13.1 eta 19.4 c) artikulua. European Committee of Social Rights, Decision on the merits, 2 July 2014, European Federation of National Organizations working with the homeless (FEANTSA) v. the Netherlands. Complaint NO. 86/2012. Eskuragarri hemen: [https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:\[%22ESCPublicationDate%20Descending%22\],\[%22ESCDIdentifie r%22:\[%22cc-86-2012-dmerits-en%22\]}](https://hudoc.esc.coe.int/eng/#{%22sort%22:[%22ESCPublicationDate%20Descending%22],[%22ESCDIdentifie r%22:[%22cc-86-2012-dmerits-en%22]})

⁴⁴ FEANTSAk zenbait erreklamazio kolektibo egin ditu, bere iritziz Frantziari, Esloveniari, Holandari eta Txekiar Errepublikari dagokienez Europako Gutun Sozialeko aurreikuspenen kontrakoak diren politika publikoei eta neurriei buruz. Webgune honetan kontsultatu daitezke: <https://www.housingrightswatch.org/page/feantsa%E2%80%99s-collective-complaints>

⁴⁵ BIZITEGI ELKARTEA, op.cit eta SALA FERNÁNDEZ, ELENA eta ACAS FERRÉ, ROSER, op. cit.

⁴⁶ Behin betiko ebaluazioa egiteke dago

ezarri zitzaizkion konfinamenduan; eta, beraz, egokia zirudien, eta betebeharrak moraltzat jotzen zen, aldi horretan egindako ahaleginekin jarraitzea.

Arartekoaren 2020ko ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio orokorraren harira -*"Euskal administrazio publikoek kalean bizi diren pertsonak artatzeko orain arte egindako ahaleginarekin jarraitu behar dute, Etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategiaren (2018-2021) gidalerroak betez"* — Arartekoak egindako informazio-eskaerari erantzunez jasotako txostenen edukia askotarikoa izan da, erantzunen xehetasunari eta administrazio bakoitzak etxerik gabeko pertsonen eragiten dieten esku-hartzetat ulertzen dutenari dagokienez.

Etxerik gabeko pertsonen egoera eta gizarte-bazterketako prozesuan dauden pertsonena bat datoz batzuetan; eta, horregatik, jasotako erantzunetan gizarte-zerbitzuek kudeatzen dituzten beste zerbitzu eta prestazio ekonomiko batzuk ere aipatzen dira, hala nola gizarte-bazterketako egoeran dauden eta osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonentzako baliabide espezifikotan artatutako pertsonentzako plazak. Jasotako informaziotik etxerik gabeko pertsonentzako jarduerak hautatu ditugu; bai bizitokirik ez dutelako, bai egoitza-baliabide sozial batean edo espetxeetan (kasu honetan, hirugarren espetxe-graduan) zeudelako.

Epigrafe honetan jasotzen dira administrazio publikoei egin zitzaizkien galderen erantzunak: Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila, Osasun Saila eta Garraio, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Saila, Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna Sustatzeko Saila, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Saila eta Bilboko, Irungo, Gasteizko, Portugaleteko, Getxoko, Barakaldoko, Donostiako, Laudio, Santurtziko eta Sestaoko Udalak.

Lehenengo atalean, **konfinamenduak iraun bitartean** (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eta haren luzapenen bidez lehenengo alarma-egoera deklaratu ondoren) **etxerik gabeko pertsonen premiei erantzuteko garatutako jarduerak** jasotzen dira.

Era berean, atal hori hiru azpiataletan banatu da. Alde batetik, esku hartzeko gai orokorrak bildu ditugu, eta horietan balorazio eta irizpide orokorrak txertatu dira. Bestetik, ostatu hartzeari, elikadurari eta osasunari buruz sustatu diren programak. Eta, azkenik, irizpideak malgutzea ekarri duten irizpide batzuk; uste baitugu ondorio positiboak izan dituela askotan oztopo gaindiezin gisa agertzen den kolektibo batengan, nahiz eta premia-egoeran egon.

Bigarren atalean, garatutako jarduerak eta **gizarte- eta ekonomia-arloko osasun-krisiari erantzuteko eta COVID-19aren hedapena geldiarazteko adostutako neurriak betetzeko aurreikusten diren jarduerak jasotzen dira**. Era berean, lehen atalean aipatutakoen antzeko edukia duten zenbait azpiatal proposatzen dira.

Hirugarren atalean, **EGPEE betetzeko** garatutako jarduerak eta aurreikusten diren jarduerak jasotzen dira. Informazio nagusia Eusko Jaurlaritzatik dator. Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saitetik, hain zuzen, haren jarraipena egiteko organo arduraduna baita.

Azkenik, informazioa eskatu zen **emakumeentzako baliabide espezifiko**ei (lehendik zeudenei eta indartuta zeudenei) buruz, halakorik balego; izan ere, baliabide horietan bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeei arreta emateko neurri jakin batzuk beharrezkotzat jotzen ziren.

Jarraian, jasotako erantzunen laburpena egingo da, aurreko atalak kontuan hartuta:

- a) Arartekoaren Gomendio Orokor horri erantzuteko egindako jarduerak.
- b) COVID-19aren progresioaren ondorioz, pandemiaren bilakaera dela-eta hartu edo berrezarri beharreko neurrien aurreikuspena.
- c) Etxerik gabeko pertsonentzako euskal estrategia (2018-2021) betetzeko egindako jarduerak.
- d) Lehendik dauden eta indartu egin diren emakumeentzako baliabide espezifikoek egoera, halakorik balego.
- e) Informazioa eman duten administrazioek interesgarritzat jotzen duten beste edozein kontu.

3.1. Konfinamenduak iraun bitartean (martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuaren eta haren luzapenen bidez lehenengo alarma-egoera deklaratu ondoren) etxerik gabeko pertsonen premiei erantzuteko garatutako jarduerak.

3.1.1. Ikuspegi orokorrago batekin egindako esku-hartzeak:

Horri dagokionez, eragile publiko eta sozialen arteko koordinazioa eta erantzunak bilatzeko lankidetzak nabarmentzen dira.

Eusko Jaurlaritzak, egungo **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren** bidez, jakinarazi du aukera baliatu ahal izan dela pertsonen beharrak zein diren jakiteko eta erantzunetan berrikuntzak txertatzeko; bai eta gizarteratze-prozesuei berrekiteko eta horiek abian jartzeko ere.

Arabako Foru Aldundiak laguntza profesionala areagotzeari eta esku hartzeko taldeak gainbegiratzeari egiten die erreferentzia. Baita segurtasun-protokoloei, deskonfinamendu-planei eta garbitasun- eta segurtasun-beharretarako aurrekontua handitzeari ere.

Gipuzkoako Foru Aldundiak azaldu du deskonfinamenduaren esparruko plangintza eta arreta bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen arretari dagokionez erakunde publikoekin eta gizarte-erakundeekin partekatutako ikaskuntzaren eta esperientziaren ondorioz landutako irizpideetan oinarrituta gauzatu dela. Horretarako, artatu beharreko biztanleria zehaztu dute, eta COVID-19ari aurre egiteko neurrietatik eratorritako baliabide eta bizitokietan zeuden gizarte-bazterketako egoeran baloratutako pertsonen arreta ematea bermatu dute. Gainera, jakinarazi du Gipuzkoako udalekin lankidetzan aritu dela pertsonen aldi baterako bizitokietatik irteteko egindako proposamenetan, bai eta Eusko Jaurlaritzak sortutako baliabide erabilgarrietarako sarbidean ere. Nabarmendu du alarma-egoeran zein deskonfinamendu-prozesuan Eusko Jaurlaritzarekin, lurralde historiko honetako udalekin (berezi Donostiakoarekin) eta baliabideak kudeatzen dituzten

gizarte-erakundeekin partekatutako lana oso handia izan dela, ahalik eta aukerarik onenak zein diren erabakitze asmoz.

Getxoko Udalak jakinarazi duenez, alarma-egoeratik salbuespenezko neurriak hartu diren lau hilabete hauetan, artatutako pertsonak bilakaera garrantzitsua izan dute beren garapen pertsonalean. Pertsona bakoitzak urratsak egin ditu bere egoeraren arabera, eta bere aukeren barruan; baina aurrerapena orokorra izan da eta gorabeherak oso txikiak izan dira.

Azkenik, **Portugaletoko Udalak** bere erantzunean adierazi du konfinamendu-aldian zerbitzuetako profesionalek telelaneko lanaldia artatutako pertsona guztiei deia egiteko erabili zutela, haien egoera baloratzeko eta hautemandako beharrei irtenbidea aurkitzeko. Hala, areagotu egin zen telefono bidezko harremana kalteberatasun-egoeran zeuden pertsona eta familia guztiekin (eta, zehazki, etxerik gabeko pertsonekin), haien egoeraren jarraipena egiteko eta pertsona bakoitzarentzat egokiena zen zerbitzua, prestazio ekonomikoa edo baliabidea izapidetzeko egon zitezkeen beharrak hautemateko.

Litekeena da beste udal eta administrazio publiko batzuek erantzun horien edukiarekin bat egitea, baina, adierazi den moduan, jasotako erantzunak baino ez ditugu aipatzen.

3.1.2 Ostatu hartzeko eskubidea eta oinarrizko beste behar batzuk

Eusko Jaurlaritzaren aldetik, egungo **Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak**, Esku-hartze Sozialeko Hirugarren Sektorearekin lankidetzan eta harekin koordinatuta, etxeko konfinamendu-aldian etxerik gabeko pertsonentzako babeslekuak prestatzen zituzten programak jarri zituen abian (Aterpeak programa), bai eta gizarte-laguntza duten ostatu-aukerak eskaintzen zituzten beste programa batzuk ere (Lehen Urratsa programa), hiru hiriburuetan eta Gipuzkoako lurraldean prestatutako babeslekuetatik atera ziren pertsonentzako gizarteratzeko prozesuak berraktibatze edo hasteko. 1.000 pertsona inguru artatu direla nabarmendu dute, eta oso pertsona gutxi geratu direla arretarik gabe.

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak jakinarazi du laguntza-programa bat adostu zuela kalteberatasun bereziko pertsona edo bizikidetzak-unitateentzat; besteak beste, etxerik gabeko pertsonentzat, "Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko apirilaren 30eko Aginduaren bidez. Horren bidez, alokairu liberako laguntzak arautu eta deitzen dira, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialeko egoerei aurre egiteko". Bertan, ahalmena ematen zitzaien Hirugarren Sektoreko beste administrazio edo erakunde batzuei pertsona edo bizikidetzak-unitate horientzako laguntza eskatu ahal izan zezaten. Araudiak kontuan hartzen zuen etxerik gabeko pertsonen espezifikotasuna, eta, beraz, ez zitzaien eskatzen 2020ko martxoaren 14a baino lehen formalizatutako errentamendu-kontraturik edukitzea; hala, etxerik gabeko pertsonak, konfinamenduaren ondoren eta udal-ekipamenduetatik irten ondoren, ostatu bat hartu ahal izan zuten. Gainera, laguntza kobratu izana justifikatzeko, errentamendu- edo baterako errentamendu-kontratu bat edukitzea nahiz azpierreantamendu-, ostatu- edo gelen alokairu-kontratu bat eskuratzea onartzen zen. Laguntza horien filosofia pertsona horientzako ibilbide bat erraztea

zen, denboraren poderioz Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-babeseke sistema baliatzeko aukera izan zezaten.

Arabako Foru Aldundiak, bere erantzunean, aipatu du ostatu hartzeko zerbitzuak berrantolatu egin direla, aldi baterako azpiegiturak izateko konfinamenduak eragindako beharrei erantzuteko eta bizitegi-bazterketako egoeran dauden edo etxerik ez duten pertsoneri erantzuteko (ETHOS tipologiaren arabera). Jakinarazi du espetxearekin lankidetzan ari dela askatasunaz gabetutako pertsonak hartzeko (espetxeko atal irekia itxi denez, kaltetutako eta kontrol telematikoarekin hirugarren graduan sailka daitezkeen askatasunaz gabetutako pertsoneri egoitza-harrera egitea baimentzen da). Hala, 2020ko martxoaren 13tik, 6 gizon eta 2 emakume artatzen ari dira askatasunaz gabetutako pertsonentzako harrera-etxean (Arkaiate zentroan).

Halaber, Gasteizko Udalarekin lankidetzan aritu dira udaleko gizarte-zerbitzuetatik etorritako pertsonak hartzeko, haien zerbitzuak gainezka baitaude. Jakinarazi du etxerik gabeko 4 pertsona hartu zituela.

Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat ekintza egin zituen etxerik gabeko edo etxe defizitarioa duten pertsoneri ostatu hartzeko eta gizarte- eta hezkuntza-laguntzarako euskarri egokia emateko, ezarritako konfinamendu-neurriak betetzeko. Jakinarazi du larrialdiko harrera-zentro bat ireki zela, hogeit hamar pertsonari arreta emateko lekua duena. Gizarte-bazterketaren balorazioa zuten pertsonak sartu ziren bertan, horren zain zeudenak, udal-baliabideetan edo kale-egoeran zeudenak, edo inolako balorazio edo beharren hasierako diagnostikorik ez zuten pertsonak, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetatik bidaliak.

Gainera, Aldundiak jakinarazi du hitzartutako zerbitzuetako plazak ere gehitu zituela. Pertsonak gizarte-bazterketako egoera egiaztatzen zuen ala ez kontuan hartu gabe eskuratu ziren plaza horiek, egoera salbuespenekoa izateagatik eta oinarrizko gizarte-zerbitzuen gaitasuna gaintzen zuten arreta-premia bereziengatik. Kasu jakin batzuetan, pertsonak (nazionalak) identifikazio-dokumentaziorik izan gabe ere sartu ziren.

Aldundiak bere jakinarazpenean gaineratu du zentro bat ireki zela sintomarik ez zuten edo sintoma arinak zituzten eta positibo eman zuten pertsonentzat, eta zentro horretako plazak Bizkaiko Lurralde Historikoko oinarrizko gizarte-zerbitzuen esku ere jarri zirela, kontuan hartu gabe pertsona horrek diagnostiko-kategoria egiaztatu zuen ala ez.

Azkenik, aipatu zuen "Housing Led" formatuko hainbat pisu eskuragarri jarri zirela, arreta pertsonalizatuagoa behar zuten gazte eta helduen arretari erantzuteko.

Bestalde, **Gipuzkoako Foru Aldundiak** adierazi du martxoaren 20tik aparteko gizarte-baliabide bat duela COVID-19aren eskakizunei aurre egiteko isolamenduei arreta emateko, beren egoera soziopertsonal bereziengatik isolamendua beharrezko osasun-bermeekin betetzea bermatu ezin duten pertsonentzat. Baliabide horretara sartzeko, Osakidetzaren osasun-preskripzioa eduki behar du COVID-19a izatearen susmoagatik edo harekin kutsatuta egoteagatik berrogeialdia isolamendu-erregimenean egiteko, aldezturik pertsonaren egoera soziosanitarioa baloratu eta kontrastatu ondoren; pertsona foru- edo udal-bizitokian mantentzeko ezintasuna izan behar da; edo pertsonak bizitokirik ez izatea eta pertsona hori

osasun-baliabideetan mantentzeko ezintasuna izan behar da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Sailak, Gipuzkoako lurralde historikoko udalek, Osakidetzak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunde publikoekin itundutako gizarte-baliabideak kudeatzen dituzten gizarte-erakundeek egiten dituzte bertara bideratzeko proposamenak.

Bilboko Udalak, bere erantzunean, adierazi du COVID-19aren ondoren ezarritako ezohiko bizitokiak jarri zituela abian, 2021eko ekainaren 31ra arte gutxienez, Eusko Jaurlaritzaren eta gizarte-erakundeen laguntzarekin (512 plaza). Plaza horiek gizarte-arretako euskarria zuten; eta Osakidetzarekiko koordinazioa mantendu zen, beharko balitz ere.

Donostiako Udalak jakinarazi duenez, hiru baliabide ireki ziren Ondarreta aterpetxean (44 plaza), Atano pilotalekuan (44 plaza) eta Uba aterpetxean (44 plaza); eta Gizarte Harrerarako Udal Zentroa irekita mantendu zen (40 plaza). Gaueko arretarako zentroa (22 plaza) itxi behar izan zutela jakinarazi du, eta Ondarreta aterpetxera pasatu zutela.

Laudioko Udalak ohiko baliabideak eman zituen, daukaten arreta-protokoloaren arabera. Halaber, jakinarazi du COVID-19a agertu zenetik kalean gaua igarotzen ari zen pertsona bat baino ez dutela aurkitu; eta udalerrri horretan aurreikusitako baliabideak eskaini zitzaizkiola (janari- eta elikagai-txartela, udaleko gizarte-zerbitzuen arreta, udal-kiroldegian garbitzeko/dutxatzeko aukera –garbiketa-joko bat ematen zaie–, osasun-txartelean ageri zaizkien produktu farmazeutikoak erosteko aukera, Caritaseko arropategi-zerbitzuan arropa jasotzeko aukera eta tren/autobus txartel bat aterpetxe hurbileneraino joateko).

Getxoko Udalak adierazi du 2020ko martxoaren 23tik alarma- edota konfinamendu-egoera amaitu arte behin-behineko aterpetxea ireki zuela Andramari kiroldegian, Getxoko udalerrian edo Uribe Kostako mankomunitatean erroldatuta edo errotuta zeuden eta kale-egoeran zeuden pertsonentzat (25 plaza).

Ekainaren 19an alarma-egoera amaituta, 2020ko uztailaren 19ra arte irekita egon zen aterpetxea.

Irungo Udalak, bere erantzunean, konfinamenduan egindako jarduerak aipatzen ditu; hain zuzen, 90 pertsona artatu ziren Zubia Gizarteratze Zentroan (25 plaza) eta alarma-egoeran erabilera horretarako prestatutako Martindozenea gazteentzako udal-aterpetxean (60 plaza). 90 pertsonetatik, 75 gizonak ziren, eta 15 emakumeak.

Ekainean, mugikortasun-murrizketak amaitu zirenean, pertsona batzuk beren borondatez joan ziren, beste batzuk erroldatuta zeuden udalerrietako gizarte-zerbitzuetara bideratu zituzten (4) eta beste batzuk Zubia Gizarteratze Zentroan geratu ziren. Halaber, pertsona bat Zubia Zentrora iritsi zen Donostiako gizarte-zerbitzuetatik bideratuta, Irunen erroldatuta zegoelako. Udalak jakinarazi du ekainaren 21ean, alarma-egoera amaitu zen egunean, Irunen ostatu hartuta zeuden pertsonen egoera honako hau zela: 19 Zubia Gizarteratze Zentroan geratu ziren, 2 borondatez joan ziren eta 3 pertsona beste baliabide batzuetara bideratu zituzten beren egoera pertsonalagatik.

Horrez gain, jakinarazi du larrialdietarako udal-etxebizitzetako plazak mantendu zituztela, bai eta ostalaritza-ostatuetaoak ere salbuespenez, bazterketa-egoeran eta etxerik gabe zeuden pertsonentzako baliabide horiek edukitzea behar zutelako bizitegi-konfinamenduko egoerak hala eskatzen zuenean.

Portugaleteko Udalak irizpide orokor gisa honakoa hartu zuen: udalerrian zegoen inor ostaturik gabe ez uztea, nahiz eta erroldatuta ez egon edo igarotze-egoeran egon. Horrela, egoera horiei erantzuteko zerbitzuak indartu egin ziren.

Larrialdiko ostatu-zerbitzuari dagokionez, Portugaleteko udalerriak kale-egoeran dauden pertsonen aldi baterako egoitza-irtenbidea emateko zerbitzu bat dauka (edo, bestela, aldi baterako bizitegi-irtenbide bat ematen die bat-batean bizitokia galtzen duten pertsonen). Modalitatea Portugaleteko udalerriko eta inguruko udalerrietako hoteletako plazak erabiltzean datza. Udalerririk horiekin pertsonak eguneko edo gaueko edozein ordutan bideratzeko aukera adostu da, eta ostalua Udalaren kontura egitea. Ondoren, konfinamenduaren ostean, ostatu egonkorrago baterako bidea erraztu nahi izan zen, bai udalerrian bertan, bai konfinamendua dekretatu zenean xede zuten udalerrian edo erroldatuta dauden udalerrian. Osasun-krisiaren ondorioz, funtzionamendu-protokoloan ezarritako gehieneko egonaldi-mugak aldatu ziren (hain zuzen, bizitoki egonkor bat aurkitu ahal izan arte edo konfinamendu-aldia amaitu arte). Ostalaritza-itxiera gertatu bazen ere, ostatu-eskaerei erantzun ahal izan zitzaizen, lau establezimenduren lankidetzari esker konfinamenduaren hasieratik hasi eta horiek behin betiko itxi arte. Baita beste bi ostalaritza-establezimenduren lankidetzari esker ere, dekretatutako itxiera mantenduta ere, zerbitzu horretatik eratorritako eskaerei erantzun baitzieten. 2020an 82 eskari jaso dira guztira larrialdietako ostatu-zerbitzu horretan.

Sestaoko Udalak, etxeko konfinamenduan, gaueko eta eguneko harrera-zerbitzua eman zien eskatu zuten etxerik gabeko pertsona guztiei; eta eskatu zutenetik aipatutako etxeko konfinamenduaren indarraldia amaitu arte eman zuen Udalak zerbitzua (hau da, Eusko Jaurlaritzaren 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan, zerbitzu horietarako aurreikusitakoa baino iraupen luzeagoa izan zuen). Aipatutako etxeko konfinamendu-aldian 9 pertsonak erabili zuten zerbitzu hori.

3.1.3. Osasunerako eskubidea

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak pertsonen adikzioen tratamenduan lagundu die programa baten bidez (Erdi programa⁴⁷), gizarte-baliabideetara jotzen zuten unitate mugikorren bidez hasieratik laguntzeko.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi du konfinamenduan zehar pertsonak konfinatuta zeuden baliabideetan artatu zirela; izan ere, konfinamendu-fase horretan kasu positiboen intzidentzia oso txikia izan zen eta, beraz, beharrezko isolamendua gizarte-baliabideetan kudeatu ahal izan zen. Interes-datu gisa, azpimarratzekoa da kutsatutako pertsonen eta haien kontaktuen beharrak artatu zirela eta denei egin zitzaizkiela behar ziren proba diagnostikoak, inor baztertu gabe Osasun Txartel Indibidualik ez zutelako edo legez kanpoko egoitza-egoera zutelako.

⁴⁷ Programa horrek luzapena izan du 2021ean, eta litekeena da 2022an ere izatea

Era berean, gizarte-baliabideekin dagoen koordinazio egokiaren berri ematen du.

3.1.4. Elikatzeko eskubidea

Adierazi behar da premia hori bizitokietan eta gizarte-baliabideetan bertan ase dela.

Donostiako Udalak, gainera, jakinarazi du kalean (batez ere abandonatutako lantegietan) zeuden 50 bat pertsonarentzako elikagaiak banatu zituztela. Pertsona horiek kalean zeuden aterpetxeetara joateari uko egin ziotelako, kanporatu egin zituztelako edo, konfinamenduak aurrera egin ahala, haietan lekurik ez zegoelako. Erakunde horrek gaineratu du konfinamenduan zehar eta ondoren pertsona gehiago egon zirela hirian.

Portugaleteko Udalak bere erantzunean aipatu du konfinamenduan zehar prestatutako janari-programa bat jarri zuela abian: Elikagaien Plataformako programa. Programa horren helburua astean behin janari izoztuak ematea zen, hurrengo astean zehar kontsumitzeko. Programa horren onuradun izan ziren kalegoeran zeuden pertsonak (5, eta horietatik 3 emakumeak ziren) edo oso egoera prekarioan daudenak (5, eta horietatik 1 emakumea zen); hau da, 6 gizon eta 4 emakume. Oro har, behar hori Abegi zerbitzuan betetzen da. Zerbitzu hori eguneko arreta-zerbitzua da, eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen eskura baliabide bat jartzen du egunean zehar bertara joateko eta elikadura- eta higienearloko oinarrizko beharrak asetzeko. Zerbitzu hori etenda egon zen konfinamenduan.

3.1.5. Betekizunak malgutzea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi du kutsatutako pertsonen eta haien kontaktuen beharrak artatu zirela eta denei egin zitzaizkiela behar ziren proba diagnostikoak, inor baztertu gabe Osasun Txartel Indibidualik ez zutelako edo legez kanpoko egoitza-egoera zutelako, lehen azaldu den moduan.

Bizkaiko Foru Aldundiak osasun-larrialdian gizarteratzeko laguntza bereziei egiten die erreferentzia; eskatutako hainbat dokumentu lortzeko erabiltzaileek zailtasunak zituztenez eta herritarrentzako arretako erregistroak itxita zeudenez, dokumentazioa aurkeztearen orde, erabiltzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat egiteko eta eskaerak posta elektronikoz bidaltzeko baimena eman zuen; eta titularra ez den beste ordainketa-figura bat orokortu zen, banku-erakundeekin era bateko edo besteko arazoak izan ditzaketen pertsonen ordaintzen zitzaizkela ziurtatzeko. Azkenik, osasun-larrialdia amaitu arte atzeratu zen laguntzak jasotzeko betekizunak betetzen zirela egiaztatzea eta justifikatzea, ahal zen neurrian, eskatzaileek aldi horretan diru-sarrerak izatea errazte aldera.

Gainera, zentro berrian eta sortutako plaza berrietan sartzeko aukera eman zen, pertsonak gizarte-bazterketako egoera egiaztatua zuen ala ez kontuan hartu gabe. Kasu jakin batzuetan, pertsonak (nazionalak) identifikazio-dokumentaziorik izan gabe ere sartu ziren.

Era berean, **Donostiako Udalak** adierazi du gizarte-larrialdietarako laguntzak eta udalen laguntza ekonomikoak azkar kudeatu zirela; eta malgutasuna egon zela prozeduretan eta malgutasun horrek bitarteko telematikoen bidez egitea ahalbidetu zuela. Udalak neurri horri buruz egindako balorazioan aipatzen da etxerik gabeko pertsona batzuek behar-beharrezko ondasunak eskuratzea erraztu zutela, eta bizileku bat segurtasunik gabe duten pertsonen hura mantendu ahal izatea prebenitzeko balio izan duela.

Irungo Udalak jakinarazi du martxoaren 17az geroztik eta alarma-egoerak iraun duen denbora guztian arreta emateko eta prestazioak eta baliabideak kudeatzeko protokoloak mantendu, egokitu eta malgutu egin direla, herritar guztiengana iristeko eta beste baliabide batzuekin (osasun-baliabideak, polizia-baliabideak, etab.) koordinatuta kale-egoeran eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen egoerak detektatzen eta artatzen jarraitzeko; egoera hori baloratu ahal izateko, bizitegi-konfinamenduarekin antolatu ziren (batez ere hasiera batean), udaleko bizitoki-baliabideetara orientatu ahal izateko.

Laburpen gisa, honako jarduera hauek mantendu dira, unean-unean egokituz eta osasun-gomendioei jarraituz:

- Une oro mantentzea, oinarrizko zerbitzu gisa, aurrez aurreko eta telefono bidezko arreta lehen mailako arretako taldearen eskutik, barne harturik etxez etxeko arreta, egoerak hala eskatzen zuenean.
- Prestazioak eta baliabideak izapidetzean dokumentazioa aurkezteko baldintzak malgutzea.

Esku-hartzeen laburpena:

- **Pertsonen erantzunak hobeto ezagutzeko**, erantzunetan **berrikuntzak egiteko** eta gizarteratze-prozesuak berriz abian jartzeko **aukera**.
- **Lan partekatu gehiago eta hobea** euskal administrazio publikoen artean, eta koordinazioa Hirugarren Sektoreko elkarteekin eta gizarte-baliabideekin.
- Esku-hartze sozialeko taldeen **laguntza profesionala eta gainbegiratzea areagotzea**. Artatutako pertsonen bilakaera positiboa.
- **Programa berriak** abian jartzea, Esku-hartze Sozialeko Hirugarren Sektorearekin lankidetzan eta haiekin koordinatuta.
- **Ostatu ematea**: ostatu-zerbitzuak berrantolatzea eta sendotzea, plazak gehitzea, larrialdiko abegi-zentroak irekitzea, COVID-19aren ondorioz bakartu behar dutenentzako aparteko gizarte-zerbitzuak sustatzea, "housing led" programak abian jartzea, gehieneko egonaldi-mugak handitzea, sartzeko baldintzak malgutzea eta bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen konfinamenduaren ondoren ostatu egonkorragoa ematea errazteko formulak bilatzea.
- **Arreta espezifiko** hirugarren espetxe-gradua duen pertsonentzat.
- Arreta espezifiko **programa** adikzio-arazoak dituzten pertsonentzat.
- Dauden **prestazio ekonomikoen kudeaketa malgutzea**, prestazioak emateko prozedurari eta prestazioak jasotzeko baldintzei eta haien justifikazioari dagokienez, baita epeak murrizteari dagokionez ere. Diru-hornidura handitzea.
- Alokairu librerako **laguntza-programa berriak**.

- **Etixerik gabeko pertsona kutsatu guztien osasun-beharrei erantzuteko arreta**, haien dokumentuzko egoera edozein dela ere.
- **Elikagaien beharra**, nagusiki, ostatuetan bertan eta gizarte-baliabideetan ase zen, baina kalean jarraitu zuten pertsoneri ere elikagaiak banatu zitzaizkien.

3.2. Osasun- eta gizarte-arloko krisiari eta krisi ekonomikoari erantzuteko eta COVID-19aren hedapena geldiarazteko adostutako neurriak betetzeko garatutako jarduerak eta aurreikusten diren jarduerak.

3.2.1. Ostatu hartzeko eskubidea eta oinarrizko beste behar batzuk

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak adierazi du konfinamenduan abian jarritako programek jarraipena izan dutela 2021. urtean.

Pandemiari aurre egiteko bitartekoak finkatu eta indartu ditu, eta 2021. urtean 29 milioi euro bideratu ditu, honako hauek barne hartuta: Inor Atzean Utzi Gabe funtsaren diru-laguntza izendunak, 6.587.248 milioi euroko balioarekin eta zenbait programa barne hartzen dituen 1,9 milioi euroko partida gehigarriarekin. Horretarako, kontuan hartu da hirugarren sektoreko erakundeekin egindako bileretan landutako programen balorazioa. Hala, Lehen Urratsa programak ehunka pertsonarentzako arreta, gizarteratze-ibilbideak eta beste zerbitzu batzuk prestatu zituen. Programa hori hiru euskal hiriburuetan administrazio publikoek Aterpeak elkarrearen bidez —Bilboko Cáritas, Gipuzkoako Cáritas, Arabako Gurutze Gorria, Durangoko Gurutze Gorria, Perualde, Bizitegi, Arrats, Ellacuria Fundazioa, Zabalduz eta Goiztiri— prestatutako aterpeetan lehen harrera egin zitzaizen laguntza gutxiko pertsoneri ostatu-aukerak emateko diseinatu zen. Programa 2021. urtearen amaiera arte luzatu zen⁴⁸.

Diru-laguntza izendunak azaldutako beharrei erantzuteko 2020an abian jarritako proiektuen jarraipenera bideratu dira, bai eta proiektu berrietara ere (hiriburuak ez diren udalerririk handietan; Barakaldo, Getxo edo Durangon, besteak beste). Eta, gainera, 1,9 milioi euroko partida gehigarri bat aurreikusten du erakunde eta instituzioekiko etengabeko elkarriketa horretan beharrezkotzat jotzen diren beste proiektu edota baliabide batzuk abian jartzeko. Bukatzeko, Gomendio Orokorra bete dela azaldu dute⁴⁹.

Bestalde, **Etxebizitza Sailburuordetzak** jakinarazi du 2021ean beste laguntza bat ematea erabaki duela: "AGINDUA, 2021eko apirilaren 13koa,⁵⁰ Lurralde

⁴⁸ Informazio-iturria: Irekia, herritarren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko komunikazio-kanala. Eskuragarri hemen:

<https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/74315-2021-gobierno-vasco-destinado-mas-millones-euros-adicionales-protoger-los-efectos-pandemia-personas-familias-severo-riesgo-exclusion>

⁴⁹ 2022an, mantendu egin dira Funtsa eta Aukerak Suspertzen, Erdu eta Lehen Urratsa (Trapezistak) programak. Azken hori Eusko Jaurlaritzako Gazteria eta Immigrazioa atalarekin, hiru hiriburuetakoa udalekin, foru-aldundiekin eta Peñascal Fundazioa eta Agintzari gizarte-erakundeekin koordinatuta egin zen.

⁵⁰ **Eusko Jaurlaritzaren Garraio, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. 2021eko apirilaren 13ko AGINDUA, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautzen dituen eta laguntza horietarako deialdia egiten duena 2021eko**

Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, etxebizitza libreak alokatzeko laguntzak arautzen dituen eta laguntza horietarako deialdia egiten duena 2021eko ekitaldian, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialari aurre egiteko". Agindu horrek 2021erako beste deialdi baten bidez eskuratzeko aukera ematen du. Deialdi hori irekita egongo da, bai lehen aldiz parte hartzen dutenentzat, bai 2020ko deialdiaren onuradun izan zirenentzat, betiere kalteberatasun-egoeran jarraitzen badute. Horren erregulazioa aurrekoaren ia berdina da, egokitzapen batzuk izan ezik.

Arabako Foru Aldundiak azaldu du (txostena bidali zuenean) bazterketa- eta marjinazio-egoeran dauden pertsonentzako bizitegi-zerbitzuetan artatutako pertsona bakar batek ere ez zuela COVID-19arekin bateragarria den sintomarik izan, bakar bat ere ez zela kasu konfinatua izan, edo ez zela ospitaleratuta egon arrazoi horrengatik. Hala ere, bestelako joerarik balego, banakako eta taldeko jarduketa zuzenerako beharrezkoak diren prebentzio- eta laguntza-neurriak ezarriko lituzkeela adierazi du.

Bizkaiko Foru Aldundiak eutsi egin die hitzartutako zerbitzuetako plazen igoerei. Halaber, bigarren alarma-egoeran, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiak berriro ere hainbat ekintza jarri zituen abian, etxerik gabeko edo etxe defizitarioa duten pertsonen ostatu hartzeko eta gizarte- eta hezkuntza-laguntza emateko euskarri egokia ematera bideratutakoak, hurrengo alarma-egoera deklaratzeko deklaratutako neurriak betetzeko.

Hauek izan ziren ekintzak:

-Gizarte-, psikologia- eta hezkuntza-arloko esku-hartze programa bat abian jarri zen, gizarte-bazterketako egoeran dauden eta COVID-19an positibo eman dutelako horretarako prestatuta dauden ostatu soziosanitario kolektiboetan dauden pertsonen laguntzeko eta haien egonaldia errazteko; horretarako, zenbait estrategia landu ziren berrogeialdia modu osasungarrian egiteko, bakartzeak eragiten dituen arrisku psikosozialak minimizatu ziren eta, hala, berrogeialdia behar bezala bete ahal izatea erraztu zen.

-Premiazko eta behin-behineko ostatu bat ireki zen gizarte-bazterketako egoeran zeuden eta osasun-larrialdi horrek eragiten ziren pertsonentzat. Proiektu horrekin helburu hauek bete nahi dira:

-Behin-behineko eta premiazko ostatua eskaintzea gaua igaro ahal izateko, eta, berehala, lotarako, elikatzeko, norbere higienarako eta abarrerako oinarrizko prestazioak ematea gizarte-bazterketako egoeran dauden eta etxerik ez duten pertsonen, osasun-alertaren ondorioz ezarritako neurriak bete ahal izateko; bereziki, gauari, mugimendu-murrizketari eta espazio publikoetan egoteko murrizketen buruzko neurriak bete ahal izateko.

-Profesionalekin harremanetan egonda, gizarteratzeko beste zerbitzu eta baliabide batzuekin koordinatzeko aukera ematea, pertsona horiek egunez zenbait prestazio tekniko jasotzen dituzten lekuan.

ekitaldian, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondoriozko kalteberatasun ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratua, 2021eko apirilaren 13an, 77. zk. Eskuragarri hemen: [https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/o/2021/04/13/\(1\)/dof/eus/html/](https://www.euskadi.eus/eusko-jaurjaritza/-/eli/es-pv/o/2021/04/13/(1)/dof/eus/html/)

-Gauerako premiazko eta behin-behineko ostatu bat irekitzea, koronabirusa hedatzea saihesteko eta Haurrak Babesteko Zerbitzutik bideratu ziren eta kalean zeuden gazteen elikaduraren eta ostatuaren oinarrizko beharrak asetzeko behar ziren baldintzak betetzeko; izan ere, gazte horiek zailtasunak zituzten COVID-19aren arloan indarrean zeuden neurriak betetzeko, gauean espazio publikoetan egoteari zegozkion neurriak betetzeko, bereziki. Beraz, pertsona gazteentzat da (18 eta 23 urte bitartekoak), zeinek, kalean egonik, beharrezkoa baitute, besteak beste, osasun-jarraipena egitea; ostatua (oinarrizko estaldura eta estaldura egonkortzailea, osasun-alertaren ondorioz ezarritako neurriak betetzeko bermeekin); gizarte- eta hezkuntza laguntza, laguntza terapeutikoa eta lan- eta gizarte-orientazioa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du jarraipena eman diola 16 plazako bizitegi-baliabide bati. Baliabide hori alarma-egoeran jarri zuten abian gizarte-bazterketako egoeran baloratutako eta intentsitate ertain eta handiko foru-eskumeneko bizitoki batera bideratutako (edo itxarote-zerrendan zeuden) pertsonen arreta emateko. Adierazi du Gipuzkoako Lurralde Historikoki gizarte-baliabide bat ematearen aldeko apustuari eusten diola, COVID-19aren ondorioz positibo ematen dutenen isolamenduak eta berrogeialdiak egingo direla bermatzeko, beren ezaugarri soziopertsonal bereziengatik isolamendua beharrezko osasun-bermeekin betetzea bermatu ezin duten pertsonen kasuan. Zerbitzu horren xede diren pertsonak gizarteratzearen esparruko behar-parametroei dagozkienak dira, gizarteratze hori zentzu zabalean hartuta.

Salbuespenezko gizarte-baliabidea da, eta denborari dagokionez mugatua. Baliabidera bideratzeko proposamenak Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalak, Osakidetzak eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko erakunde publikoekin itundutako gizarte-baliabideak kudeatzen dituzten gizarte-erakundeek egin ahal izango dituzte. Proposamen horiek honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

-COVID-19az kutsatuta dagoelako susmoaren ondorioz berrogeialdia bakartuta egiteko osasun-preskripzioa izatea eta aurrez pertsona horren egoera soziosanitarioaren balorazioa eta egiaztatzea eginak izatea.

-Pertsona foru- edo udal-ostatuan mantentzerik ez izatea edo pertsonak bizilekurik ez izatea.

-Pertsona osasun-zerbitzuetan mantentzerik ez izatea.

Bilboko Udalak Bilbao Aurrera 2 Planaren berri eman du. Plan horretan, beste neurri batzuen artean, koronabirusaren egoera dela-eta bereziki kaltetuak izango diren eta arreta espezifiko beharko duten pertsona guztientzat ezkutu sozial izateko ekintzak aurreikusten dira. Kolektibo horri zuzendutako neurrien artean, aldizkakoak ez diren udal-laguntza berezien ezohiko programa eta etxerik gabeko pertsonen ostatu emateko funts berezia aurreikusten dira. Halaber, etxegabetzeek kaltetutako familiei arreta bermatzeko funts ekonomikoa aipatzen da, izan dezakeen interesa tarteko. Berriki, komunikabideei jakinarazi die behin-behineko arreta-eredua aldatu egingo dutela bizitegi-bazterketa larria jasaten duten pertsonen arretarako neguko zerbitzuekin; horretarako, baliabide iraunkor berriak sortuko dituzte urte osorako, eta, hala, orain dauden neguko 75 ostatu-plazak bikoiztu egingo dira eta 150 izango dira. Plaza horiei bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonak artatzen

dituzten baliabideen plazak gehitu behar zaizkie, zeinak urtez urte areagotzen baitira; eta, 2022. urterako, eguneko arreta-zerbitzu berri bat aurreikusten da Elejabarri udal-aterpetxean.

Donostiako Udalak konfinamenduaren ondoren adostutako neurri hauek aipatu ditu:

- Etxerik gabeko pertsonak alarma-egoeran ezarritako konfinamendua bete ahal izatea errazteko ad hoc irekitako hiru zentroak itxi ziren.

- Gaueko Aterpea (22 plaza) berriro ireki zen; baina Covid kasuen igoera (bigarren olatua deritzona) egiaztatu ondoren, Uba aterpetxera lekualdatu zen, eta hartutako pertsonak banakako geletan jarri ziren.

- Gizarte Herrerako Zentroan hainbat logela dituzte erreserbatuta COVID-19agatik isolamendua behar duten pertsonari arreta emateko (edo beste gaixotasun batzuegatik —tuberkulosia, esaterako— isolamendua behar duten pertsonari arreta emateko, gaur egungo osasun-sistemaren egoera dela-eta ez baitira behar duten zorrotasunaz artatzen).

- Gaineratu du Neguko Protokoloa aldatu egin dutela. 2021ean ez dute ireki ate irekien zerbitzua (gau bereziki hotzetan logela gisa prestatzen zen gunea), ezinezkoa baitzen Covid prebentzio-neurri gutxienekoak mantentzea. Horren ordez, banakako logelak (edo bikoitzak, eskaeraren arabera) dituen aterpetxe bateko solairu bat erabiltzea aurreikusi da. Ez da ate irekien zerbitzu bat; aitzitik, Gizarte Larrialdietako Udal Zerbitzuaren eta Eguneko Zerbitzuaren bidez, eguraldi txarra jasateko kalteberenak direla uste duten pertsonari babesa era selektiboan eman nahi zaie.

100.000 €-ko partida ekonomiko espezifikoa prestatu zen Covid aterpetxeetan egon eta logela edo bizitegi-alternatiba bat bilatzen zuten pertsonentzat. 29 pertsonak ostatua horrela aurkitu zutela jakinarazi du.

Arrats elkarteak Eusko Jaurlaritzaren Lehen Urratsa programaren kontura diruz lagundutako proiektu bat eskatu eta abian jarri zuen, Covid aterpetxeetan harreraren egondako 32 pertsonari aldi baterako ostatua emateko. Horretarako 8 etxebizitza behar izan zituzten, eta horietatik 4 Donostiako Udalak eman zituen.

Udalak tutoretzapeko 4 etxebizitza ireki zituen. Horietako bakoitzean Covid aterpetxeetan egondako 3 pertsona hartu ziren.

Covid aterpetxeetan ostatu hartu zuten pertsona batzuk Udalaren mende ez zeuden baliabideez baliatu ziren, baina koordinazioa egon zen. Zehazki, Peñascal eta Zabalduz elkarteek 26 bat pertsonarentzako ostatua prestatu zuen (hori ere Eusko Jaurlaritzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Lehen Urratsa programaren testuinguruan); eta pertsona bereziki ahulentzako zerbitzu bat jarri zuen abian: San Joan Jainkoarena (16 plaza).

Azkenik, Donostiako Udalak elikagaiak banatzeko programa bat jarri zuen abian, eta kalean jarratzen duten 35 bat pertsonarentzat mantendu da. Gainera, 2021eko maiatzean jakin da hiriko taberna eta jatetxeetan etxerik gabeko pertsonari bazkaltzen eta afaltzen emateko programa bat jarri dela abian, 173.250 €-koa.

Getxoko Udalak araudi bat eta laguntzen deialdi bat onartu zituen pertsona horiek gizarteratze-prozesuarekin jarraitu ahal izan zezaten (ekainaren 30eko 2.258/20 Dekretua). Beharrezkotzat jotzen zuten etxebizitza bat eskuratzeko gastuak eta oinarritzko beharrak (elikadura, jantziak) barne hartzea, eta kasu batzuetan errolatzea ahalbidetzea eskubideak sortzen jarraitu ahal izateko.

Hasiera batean, laguntza 3 hilabetekoa zen; eta bertan, pertsonarekin batera, egoera pertsonala baloratzen zen eta hainbat lan-ibilbide ezarri ziren. Gero laguntza hori luzatu egin zen, gutxienez, 2021eko ekainaren 30era arte.

Proposatutako laguntzen zenbatekoek nolabaiteko proportzionaltasuna dute ohiko prestazio eta laguntzekiko. Horrela, beharrezkoa izanez gero, gizarteratze-prozesuak jarraipena izan dezake gizarte-larrialdietarako laguntzen laguntzarekin.

Udalak jakinarazi du konfinatuta egon ziren eta gizarteratze-prozesua hasi zuten pertsona guztiak, beste aukerarik aurkitu ez dutenak, gizarte-zerbitzuek babesten dituztela oraindik; eta horietako inor ez dela kale-egoerara itzuli.

Aldi berean, gaueko harrera-zerbitzuko ohiko 19 plazek (horietako 4 emakumeentzat dira) eta eguneko arreta-zerbitzuko 10 plazek bere horretan jarraitzen dute, eta etxebizitza komunitario bat irekitzea aurreikusten zuten, gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonentzat.

3.2.2. Osasunerako eskubidea

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak jakinarazi duenez, beren egoera klinikoa edo epidemiologikoa dela-eta gaueko ordutegia eta ospitaleratzea (22:00etatik 08:00etara) behar duten pertsona guztientzat gizarte-baliabiderik ez dagoenez, ordutegi horretan Osakidetzako ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetan egoteko aukera ematen zaie, kasuan kasuko gizarte-ebazpena eman arte.

Gainera, azaldu dute berariaz ematen dietela erraztasuna PCR probak⁵¹ egiteko gizarte-bazterketako egoeran dauden eta proba horiek behar dituzten pertsonen, bai eta haien kontaktuei ere; eta Osasun Sailak kontratatutako hotel-plazak eskura jartzen dituztela, beren bizilekuen edo bizikideen baldintzengatik edo bizilekurik ez izateagatik isolatu ezin diren pertsonentzat isolamendu seguruak egiteko bereziki prestatuak.

Baliabide bereziak foru-aldundietako eta udaletako gizarte-arlotik % 100ean betetzen direnean, isolamendua behar duten eta gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonak Osakidetzako eta Osasun Publikoko zaintza epidemiologikorako eta kontaktuen miaketarako sistemara bideratzeko prozedura bat ezarri da, handik anbulantziak presta daitezten hoteletara lekualdatzeko.

Zehazki, bi hotel prestatu dira, eta oraindik ere hor zeuden txostena bidali zenean, helburu horretarako: bat Bizkaian eta beste bat Gipuzkoan (Gipuzkoa eta Arabarako). Guztira 80 logela bikoitz dituzte. 2020ko ekainetik azarora bitarteko

⁵¹ 'Polimerasaren kate-erreakzioa' ren ingelesezko siglak.,

sei hilabeteetan, 600 pertsonak baino gehiagok hartu dute ostatu. Horietatik % 35 eta % 40 artean, gutxi gorabehera, ostatu hartzeko gizarte-baliabideei lotutako pertsonak dira; eta % 10 eta % 15 artean, etxerik gabeko pertsonak.

Bukatzeko, adierazi dute etorkizunean, eta egoera epidemiologiko txarrak dirauen bitartean, Osasun Sailaren asmoa neurri horiei guztiei eustea dela.

Esku-hartzeen laburpena:

2021ean, **ostatu-programak** mantendu dira eta jarraipena eman zaie, COVID-19ak eragindako konfinamenduan abian jarri ziren programekin jarraitzeko; era berean, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eman da, etxerik gabeko pertsonen gizarteratzen laguntzeko ibilbideak sustatzeko, eta diru-partida espezifiko berriak sortu dira Covid aterpetxeetan zeuden pertsonen logela bat edo ordezkoko bizileku bat izan zezaten.

- Bizilekuak **osasun-eskakizunetara egokitu** dira.
- **Alokairu librerako laguntza-programak** mantendu dira.
- **Araudi berri bat sustatu da eta laguntza-deialdia luzatu da**, pertsona horiek gizarteratze-prozesuarekin jarraitzeko aukera izan zezaten eta etxebizitza bat eskuratzeko, oinarrizko beharrak asetzeko eta erroldatzeko gastuak ordaindu zitezten.
- **Baliabideak, plazak, diru-partidak eta aurrekontuak luzatu dira**, pandemiaren eskakizunei erantzun ahal izateko.
- Etxerik gabeko pertsonen inklusiorako beste zerbitzu eta baliabide batzuekin **koordinatuta** lan egin da.
- **Gizarte-, psikologia- eta hezkuntza-arloko esku-hartze programak sustatu dira**, gizarte-bazterketako egoeran dauden eta COVID-19an positibo eman dutelako horretarako prestatuta dauden ostatu soziosanitario kolektiboetan bakartuta dauden pertsonen laguntzeko.
- Gauerako premiazko eta behin-behineko ostatu bat ireki da, koronabirusa hedatzea saihesteko eta **Haurrak Babesteko Zerbitzutik bideratu** ziren eta kalean zeuden **gazteen oinarrizko beharrak** asetzeko.
- **Berriz ireki dira banakako logelak dituzten aterpetxeak**, ahal izan den orotan, kutsatzeak prebenitzeko.
- Gizarte-bazterketako arriskua duten pertsonentzako **etxebizitza komunitarioak irekitzeko proiektuak** diseinatu dira.
- **Neguko protokoloa aldatu eta egokitu egin da**, kontuan hartuta eguraldi txarraren ondorioak jasateko pertsona zaurgarrienak babesteko behar berriak.
- Abian jarri dira **elikagaiak banatzeko programa berriak** eta **esperientzia pilotu** bat, etxerik gabeko pertsonen hiriko taberna eta jatetxeetan bazkaria eta afarria emateko.
- Etxerik gabeko pertsonen ospitaleetako larrialdi-zerbitzuetan egoteko aukera izan dute beren kasua gizarte-ikuspegitik konpondu arte.
- Abian jarri da **gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen PCR probak egiteko** sistema bat, proba horiek behar dituztenerako, baita **bereziki horretarako prestatutako plazak ere hoteletan**, etxerik ez dutenez bakartu ezin diren pertsonen bakartzeko aukera seguruak emateko. Barne hartzen du hoteletara joateko **anbulantziak** erabiltzea ere.

3.3. Garatutako jarduerak eta EGPEE (2018-2021) estrategia betetzeko aurreikusten diren jarduerak

Atal honetan, EGPEE betetzeko egindako jarduerak jaso ditugu. Gogora ekarri behar da Estrategia indarrean zegoela COVID-19a hedatu aurretik.

Jasotako erantzunetako batean aipatzen denez, osasun-larrialdiaren ondorioz administrazio publikoek hainbat jarduera egin dituzte alarma-egoeraren eta egoera epidemiologikoaren ondorioz; baina ez dute Estrategia bere horretan birplanteatzea edo egokitzea ekarri, askotan egokitu behar izan baitira larrialdi-egoerei aurre egiteko edo berehalako arreta behar zuten egoerei aurre egiteko.

EGPEE estrategian hartutako konpromisoak Arartekoak Gomendio Orokorrean baloratu zituen, eta haien garrantzia nabarmendu zuen etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzun ahal izateko. Hori dela eta, erakunde honek azpimarratu zuen oso garrantzitsua dela (batez ere, krisi sanitario, sozial eta ekonomikoko une honetan) konpromiso horiek betetzea. Eta, ondorioz, gomendio horren aurrerapenei buruzko informazioa eskatu du.

Jasotako erantzunetan, administrazio publikoak, batez ere, EGPEE betetzeko alarma-egoeraren aurretik egindako jardueretara mugatu dira.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak EGPEE ezarri zen lehen urteari buruzko jarraipen-txostena erantsi du, 2019ko irailekoa. Bertan berariaz adierazten du beste txosten bat egingo duela Estrategiaren indarraldia amaitzen denean. Txosten horretan bizitegi-bazterketaren aurrean esku hartzeko ereduaren aldaketaren irismena aztertuko da, baita etxegabetasunaren fenomenoaren eta eragindako pertsonen egoeraren hedadura ere. Txosten berri hori egitea oso beharrezkoa da funtsezko elementuak hautemateko, eta horietatik abiatzeko Estrategiaren jarraipenean.

Jarraipen-txostenak Eusko Jaurlaritzako sailek, hiru foru-aldundiek eta EAEko hamabost bat udalek egindako jarduerak jasotzen ditu; hau da, Estrategia ezarri den lehen urtean atxiki diren administrazio publikoek egindakoak. Ondorioen artean nabarmentzekoa da garapen-maila egokia lortu dutela honako hauei buruzko ardatzek: bizitegi-bazterketa larriko egoerak prebenitzea (1. ardatza); etxebizitzan oinarritutako ikuspegia garatzea (2. ardatza); gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonen bideratutako baliabideak eta programak hobetzea gizarte-zerbitzuen esparruan (3. ardatza); etxerik gabeko pertsonen herritartasun-eskubideak eskuratzeko bermea, haien administrazio-egoera erregularizatuz (5. ardatza); osasunaren arloko hobekuntza sektorialak, diru-sarreraren bermea eta enplegua lortzea (6. ardatza); baita ezagutzaren koordinazio-, jarraipen-, ebaluazio- eta kudeaketa-neurriak ere.

Garapen-maila egokia ez duten ardatzak honako hauek dira: etxerik gabeko pertsonen aisialdia, hezkuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa izan ahal izatea (7. ardatza); eta komunitateak bizitegi-bazterketako egoeren prebentzian eta

lanketan duen sentsibilizazioaren eta inplikazioaren arloko hobekuntzei buruzkoa (8. ardatza).

Datu interesgarri gisa, ardatz garrantzitsu batek —hain zuzen, bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta lantzeko politiketan genero-ikuspegia indartzeak (4. ardatza)— garapen-maila ertaina du.

Jarraipen-txostenak eta ondorengoek aukera emango dute garatzen ari diren jarduerak ezagutzeko, nahiz eta administrazio publikoen kopuru handia eta adierazle homogeenak lantzeko eta interpretatzeko zailtasunak muga gisa aurkezten diren. Datu interesgarri gisa, Esku-hartze Sozialeko Hirugarren Sektoreak ere parte hartzen du Etxerik Gabeko Pertsonen Batzorde Politiko Teknikoan.

Eusko Jaurlaritzako Garraio, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Etxebizitza Sailburuordetzak jakinarazi du, EGPEEren esparruan, babes publikoko 4 etxebizitza Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat lagata dituela "Housing First" programa bat garatzeko; 22 etxebizitza, etxegabetasunaren pareko egoeran dauden pertsonen edo bizikidetzaren unitateei arreta ematearekin lotutako Hirugarren Sektoreko elkarteentzat; eta 110 etxebizitza, kalteberatasun bereziko pertsonak edo bizikidetzaren unitateak artatzera bideratutako Hirugarren Sektoreko beste administrazio edo erakunde batzuentzat.

Jakinarazi du gaur egun 59.792 familia-unitate ageri direla Etxebideko Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emanda, errentamendu-erregimenean. Izena emandako pertsonen ehunekorik handienak 9.000 eta 12.000 euro bitarteko diru-sarrerak ditu urtean; eta aurrez deskribatutako baremazio-prozeduraren bidez errentamendu-erregimeneko etxebizitzaren esleipendun izateko zain daude. Gainera, 6.137 bizikidetzaren unitatek dute aitortua etxebizitzarako eskubide subjektiboa; eta, beraz, lehentasuna dute eskuratzeko, Etxebizitzaren Euskal Legean aitortzen den bezala.

Bestalde, babes publikoko edo pareko 14.929 etxebizitza kudeatzen ditu, errentamendu-erregimenean. Horietan bizi diren pertsonen edo bizikidetzaren unitateek, horrelako etxebizitzak eskuratzeko betekizunak betetzen jarraitzen badute, etxebizitza horietan jarraituko dute; eta horrek alokairuko etxebizitza bat eskuratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen egonkortasuna emateko helburua islatzen du.

Amaitzeko, adierazi dute gaur egun ez dagoela eskatzaile guztientzako etxebizitzarik; eta Sail hori hainbat jarduera-ildotan ari dela lanean, eskuragarri dauden etxebizitza publiko eta pribatuak ugaritzeko eta merkatu librean alokairua lortzeko baliabide ekonomiko gehiago lortzeko, besteak beste. Horretarako, gainerako administrazio publikoen lankidetzaren beharrezkoa da, baita herritarren beraien lankidetzaren ere.

Arabako Foru Aldundiak jakinarazi du etxerik gabeko pertsonen zenbaketa, 2020ko azken hiruhilekorako aurreikusitakoa, aurreratu egin zela; konfinamenduan zehar egin zen, eta zentzuzko buruzko galdetegiak bete ziren. Egindako bilerak eta erakundearen arteko koordinazioa aipatzen ditu.

Bizkaiko Foru Aldundiak erantzun du etxebizitzan oinarritutako ikuspegi bat garatu duela, bai Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan egoitza-zerbitzu gisa kategorizatutako zerbitzuen ikuspegitik, bai "Housing First" ereduaren oinarritutako metodologia berritzaileen bidez.

Ardatz honetan, egoitza-zerbitzuak zein arreta-programei lotutako etxebizitzak eskuratzeko betekizunak malgutzaren aldeko apustua nabarmendu du, zehazki, honako betekizun hauek birplanteatuz: arazoaren kontzientzia, aldaketaren motibazioa, adinaren betekizunak eta errolatze-antzinatasuna.

Gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zuzendutako programak eta baliabideak hobetzea ere proposatu du, arreta-plazak areagotuz; batez ere ikuspegi komunitarioko eguneko zerbitzuak indartuz eta hedatuz, egoitza-laguntzarekin edo gabe.

Beste proposamen bat emakumeen etxegabetasunaren premia espezifikoari ematen zaien arreta indartzea da, emakumeen zuzendutako programak garatuz.

Halaber, adierazten du etxerik gabeko pertsonen aisialdia, hezkuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa izan ahal izatea, oinarri komunitarioko arreta-zerbitzuak sustatuz eta esku hartzeko prozedura bat diseinatuz, erabiltzaileen parte-hartzean oinarritzen dela une oro, haren lehentasunak eta ahalmenak kontuan hartzeko moduan.

Ezagutzaren koordinazioaren, ebaluazioaren eta kudeaketaren garrantzia nabarmendu du, baloraziorako, diagnostiko sozialerako, jarraipenaren baloraziorako eta ebaluaziorako tresna tekniko komunak garatuz.

Azkenik, Gizarteratzeko Zuzendaritza Nagusiaren eta Herritarrei Arreta Emateko Zuzendariorde Nagusiaren arteko akordio baten berri eman du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren 2.2.3 fitxan aurreikusitako eguneko zerbitzuen helbidea errolatze-helbide gisa baimentzeko. Horrela, kale-egoeran dauden erabiltzaileei helbide bat edukitzeko aukera ematen zaie, hainbat arlotan (gizarte-zerbitzuak, diru-sarreraren bermea, etab.) indarrean dagoen araudiak aitortzen dizkien eskubideak baliatzeko funtsezko tresna bat eskuratu ahal izateko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazi du aurrera egin dela bizitegi-baliabideen egokitzapenean, bizitegi-plaza berrien irekieran eta Habitat ereduaren esperientzian sakontzean; bai eta lurralde-estaldurako egoitza- eta komunitate-arretako proiektu integral bat abian jartzean ere, gizarte-bazterketako egoeran dauden eta narriadura pertsonal, erlazional eta sanitario larria duten pertsonen intentsitate ertaineko eta handiko laguntza orokortuko ostatu-zerbitzu bat eskaintzeko (horrek, batez ere, laguntza- eta babes-funtzioa garatzeko eta, hala badagokio, kalteak murrizteko aukera ematen du).

Bilboko Udalak Estrategiaren zati gisa egindako ebaluaziora jo du.

Donostiako Udalak jakinarazi du 2020an zehar hainbat ekintza garatu dituztela EGPEEren 9 ardatzetako bakoitzean ezarritako gidalerroen arabera. Aurreko urteetan ere hainbat neurri hartu zituzten EGPEE betetzeko.

2.c. gidalerroa. Lankidetzak-akordioak ezartzea gizarte-zerbitzuetako udal-sailen eta etxebizitzako udal-sailen artean, bizitegi-bazterketako egoeran dauden pertsonen etxebizitzak emateko, baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza-zerbitzuen zuzkidura nahikoa lortzeko (1.9.2). Eta 2.d gidalerroa: Baztertuta geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitzetarako EAEko Gizarte Zerbitzuen Mapan aurreikusitako zuzkidurak garatzea Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen eskualde guztietan (1.9.2).

2020an, Etxegintzak 4 etxebizitza laga ditu, gizarte-bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonentzako tutoretzapeko etxebizitza gisa erabiltzeko. Horiekin batera, 7 etxebizitza bideratuko dira zerbitzu horretara; eta horri harrera-etxebizitzaren zerbitzurako 21 etxebizitza gehitu zaizkio. Hala, bi zerbitzuetan Donostiarako Gizarte Zerbitzuen mapan ezarritako plaza-kopurura iristen da. Zerbitzu horiei eusten dieten etxebizitza guztiak Etxegintzak eman ditu.

3.d. gidalerroa. Ingurune irekian esku hartzeko programak sustatzea, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartze zerbitzuen eta esku-hartze zerbitzu psikosozialen esparruan (1.3), gaua kalean igarotzen duten etxerik gabeko pertsonen edota gizarte-bazterketa larrian dauden pertsonen zuzendutakoak.

Arrats Elkarrekin diru-laguntza eskatu zion Eusko Jaurlaritzari Lehen Urratsa planaren barruan, Hestia Eguneko Zentroari lotutako udaleko kale-hezkuntza zerbitzua indartzen duen kale-hezitzaile bat kontratatuzeko.

4.a. gidalerroa. Lurralde Historiko bakoitzeko Gizarte Zerbitzuen Mapak egitean, zorrotz buruzko Dekretuan aurreikusitako bizitoki-zentroen kopuru jakin bat erreserbatzea bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeek bakarrik erabili ditzaten. Zentro horietara atxikitako langileek (segurtasuneko langileek barne), gainera, batez ere emakumezkoak izan beharko lukete.

Tutoretzapeko etxebizitzetako 2 gutxienez, eta harrerako 5 bat etxebizitza, emakumeentzat dira. Tutoretzapeko etxebizitzetako lotutako hezkuntza-taldean gutxienez bi emakumek (lautik) lan egiten dute; eta ahal dela etxebizitza horiek artatzen dituzte.

5.a. gidalerroa. EAEko udal-erakundeak espezifikoki garatzea, lurraldean bizi ohi diren etxerik gabeko pertsona guztien erroldatzea errazteko, gaua igarotzen duten lekua edozein dela ere, Presidentetzako Ministerioaren 2015eko martxoaren 16ko Ebazpenaren 3.3. atalean jasotakoaren arabera (udal-erroldaren kudeaketari buruz udalei emandako jarraibide teknikoari buruzkoa da ebazpen hori).

Duela urte batzuetatik aipaturiko ebazpenaren jarraibideak betetzeaz gain, 2020an, Udalean kudeaketak egin dira ebazpen horretan azaldutako dokumentazioa ez duten pertsonen erroldatzea errazteko edo aipaturiko eskuratzea errazteko (gai bereziki garrantzitsua Aljeriako herritarrentzat).

6.b. gidalerroa. Ospitale batean alta eman edota gaixotasun edo mediku-tratamendu batetik sendatzen diren etxerik gabeko pertsonentzako susperraldi soziosanitarioko programak edo zentroak sortzea EAEko hiru lurraldeetan, sare

soziosanitarioko zentroetan plazak erreserbatuz eta gizarte-zerbitzuetako egoitzetan plaza jakin batzuk aldi baterako erabiliz.

Gizarte Harrerarako Udal Zentroan pertsona asko hartzen ari dira Donostia Ospitalean alta eman ondoren, susperraldiak egin ahal izan ditzaten.

9.c. gidalerroa. Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek eta Bilboko, Donostiako eta Gasteizko Udalek gizarte-bazterketa larriaren esparruan ezagutza kudeatzeko jarduerak egiteko ezarritako hitzarmena sustatzeari buruzkoa.

Azkenik, jakinarazi du konfinamenduan zehar, SIISekin eta EAEko gainerako udalerriek koordinatuta, etxerik gabeko pertsonen kopuruari eta egoerari buruzko datuak bildu ziren, horietan oinarrituta SIISe EAEko bizitegi-bazterketa larriari buruzko V. azterlana egin baitzen.

*Esku-hartzeen laburpena:*⁵²

- EGPEEaren indarraldia amaitzen denean, beste **txosten** bat egingo da. Txosten horretan bizitegi-bazterketaren aurrean esku hartzeko ereduaren aldaketaren irismena aztertuko da, baita etxegabetasunaren fenomenoaren eta eragindako pertsonen egoeraren hedadura ere.
- EGPEEaren jarraipen-txostenaren arabera, **garapen-maila egokia** lortu da bizitegi-bazterketako egoera larriak prebenitzeari buruzko **ardatz gehienetan** (1-6 ardatzak); **garapen-maila egokia ez** duten ardatzak honako hauek dira: etxerik gabeko pertsonen aisialdia, hezkuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa izan ahal izatea (7. ardatza); eta komunitateak bizitegi-bazterketako egoeren prebentzioan eta lanketan duen sentsibilizazioaren eta inplikazioaren arloko hobekuntzei buruzkoa (8. ardatza). Bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta hura lantzeko (4. ardatza) politiketan **emakumeen etxegabetasunari** emandako arreta indartzeak **garapen-maila ertaina** du.
- **Esku-hartze Sozialeko Hirugarren Sektoreak** parte hartu du Etxerik Gabeko Pertsonen Batzorde Politiko Teknikoan.
- **Etxebizitza oinarri duen ikuspegia garatzea sustatu da**, indarrean dauden Prestazio eta Zerbitzu Zorroarekin bat eginda, eta metodologia berritzaileak ezarri dira, hala nola "Housing First", "Housing Led", etxebizitza komunitarioen proiektuak, etxebizitza publikoak Hirugarren Sektore Sozialari uztea eta beste formula batzuk, non **etxebizitza bat lortzeko aukera izatea baita lehen urratsa** bizitegi-bazterketa larriko egoeratik irteteko.
- Jarduera-ildo berriak sortu dira, **etxebizitza publiko eta pribatu gehiago izateko eskuragarri** eta baliabide ekonomiko gehiago izateko merkatu libreko alokairurako, besteak beste.
- **Plaza gehiago sortu dira** tutoretzapeko etxebizitzetan eta **emakumeentzako plaza** espezifikotan.
- **Etxerik gabeko pertsonen zenbatekoa aurreratu da**; 2020ko azken hiruhilekorako aurreikusia zegoen, baina konfinamenduan egin zen.
- **Bilerak egin dira** zenbait mailatan eta Hirugarren Sektorearekin, eta erakunde arteko **koordinazioa hobetu da**.

⁵² Administrazio publikoak, atal honi buruz eman dituzten erantzunetan, alarma-egoera ezarri aurretik EPGEe estrategia betetzeko egin ziren jardueretara mugatu dira nagusiki.

- Egoitza-zerbitzuetara eta arreta-programekin lotura duten etxebizitzetara **sartzeko eskakizunak berraztertu eta malgutu dira.**
- **Gizarte-bazterketa larriko egoeran dauden pertsonen zuzendutako programak eta baliabideak hobetzea**, arreta-plazak areagotuz; batez ere ikuspegi komunitarioko eguneko zerbitzuak indartuz eta hedatuz, egoitza-laguntzarekin edo gabe.
- Aisialdia, hezkuntza eta parte-hartze sozial eta politikoa izan ahal izatea, oinarri komunitarioko arretak sustatuz eta esku hartzeko prozedura bat diseinatuz. Prozedura hori, une oro, **erabiltzaileen parte-hartzean** oinarritzen da, haren lehentasunak eta ahalmenak kontuan hartzeko moduan.
- **Ezagutzaren koordinazioaren, ebaluazioaren eta kudeaketaren garrantziaz jabetzea**, baloraziorako, diagnostiko sozialerako, jarraipenaren baloraziorako eta ebaluaziorako tresna tekniko komunak garatuz.
- Euskal administrazio publikoen arteko akordioa egin da, **errola-helbide gisa erabili ahal izateko** eguneko zerbitzuetako helbidea; horrek funtsezko tresna bat eskura izateko aukera emango die beren eskubideak baliatzeko eta mantentzeko orduan.
- **Kaleko hezitzaile** bat kontratatu da, zeinak eguneko zentroei lotutako kaleko udal heziketa-zerbitzua indartu baitu.
- Ospitaleetan alta eman ostean, aterpetxeetan harrera egin zaie etxerik gabeko pertsonen, **susperraldia** igaro dezaten.
- Etxerik gabeko pertsona-kopuruari eta haien egoerari buruzko **datuak bildu dira, sexuaren arabera bereizita.**

3.4. Emakumeentzako baliabide espezifikoak.

Atal honetan, bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeentzako berriazko programen edukia jasotzen da. Erantzun batzuetan indarkeria matxistaren biktimak diren emakumeentzako programen berri emanez erantzun bada ere, egindako galdera etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak emakumeen hazkunderaren errealitatera egokitzeari buruzkoa zen; beraz, atal honetan emakumeen behar espezifikoak erantzuten dieten etxerik gabeko pertsonentzako baliabideak baino ez ditugu jaso.

Talde zaugarri batzuek arazo berak izan ditzaketen arren, bakoitzak behar espezifikoak ditu, eta behar horiek zerbitzu espezializatuetan artatu behar dira; zehatzago, etxerik gabeko emakumeak, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak diren emakumeak eta pertsonen salerosketaren biktimak diren emakumeak. Erakunde honetatik, azpimarratzen da etxerik gabeko emakumeak bazterketaren biktimak direla sexua dela eta, gizarte- eta bizitegi-bazterketa jasaten dutela eta, eskuarki, emakumeen kontrako indarkeriaren biktimak direla eta pertsonen salerosketaren biktimak ere izan daitezkeela. Batzuetan problematika partekatua da, baina ez beti, eta haietako bakoitzak arreta espezifiko behar du, zerbitzu espezifikoaren eskutik.

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailak EGPEEren 4. ardatza aplikatuz egindako jardueren berri eman du: *Genero-ikuspegiak indartzea bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta jorratzeko politikan*. Ardatz horretan bost gidalerro espezifiko jasotzen dira, bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeen

ematen zaien arreta hobetzeari buruzkoak (eta, zehazki, emakumeek soilik erabiltzeko plazen erreserba hobetzeari buruzkoak).

Adierazi du 2018ko jarraipen-prozesuan egiaztatu duela informazio-bilketan parte hartu zuten udal guztiek (Barakaldo, Bilbo, Donostia, Getxo, Irun, Santurtzi eta Gasteiz) gai horri buruzko berariazko jardueraren bat garatu zutela, eta hori adierazi dutela hiru lurralde historikoetan hainbat jardura egin dituzten foru-aldundiei dagokienez.

Pandemiarengatik etxerik gabeko pertsoneri arreta emateko garatutako proiektuen artean, eta Lehen Urratsaren baitan, etxerik gabeko emakumeei arreta emateko ekintza-ildo bat dagoela gaineratu du Departamentuak. Horren bidez, aldi baterako baliabide bat sortu da babesleku komunitan ostatu hartuta dauden emakume batzuei erantzuteko, ostatu hartzeari, mantenuari eta oinarrizko laguntza operatibo eta psikologikoari dagozkion oinarrizko premietan laguntza eskaintzeko, helburu espezifiko argi batzuekin. Helburu horien artean nabarmentzekoak dira honakoak:

- ostatua eta mantenua;
- aholkularitza eta laguntza, ostatu hartuta dauden emakumeek eskubidez dagozkien zerbitzuak eta prestazioak balia ditzaten;
- gizarte-bitartekaritza eta -laguntza, gizarteratzeko prozesuan;
- beren gizarteratze-prozesuetan aurrera egiten lagunduko dieten garapen pertsonalari eta funtzionamendu independenteari laguntzen dieten gaitasun pertsonalak garatzea.

Hasiera batean, etxerik gabeko 20 emakume artatzeko erabili da proiektu hori; eta jarraipena izango duela aurreikusten da.

Bizkaiko Foru Aldundiak erantzun du emakumeei zuzendutako programak garatzen ari direla, genero-ikuspegia indartzeko modu gisa.

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du, gizarte-bazterketako egoeran baloratutako eta eskakizun txikiko intentsitate ertaineko edota handiko foru-eskumeneko bizitoki batera bideratutako (edo itxarote-zerrendan dauden) pertsoneri arreta emateko alarma-egoeran abian jarritako egoitza-baliabidearen esparruan, emakumeei berariazko arreta emateko aukera jasotzen zela; eta hori Donostiako Udalarekin landu zela, bereziki bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeak banan-banan pertsonalizatu eta laguntzeko.

Halaber, jakinarazi du harreman eta jarraipen estua duela erakunde publiko eta sozialekin, zerbitzuak eta prestazioak egokitzeko. Alarma-egoerak iraun bitartean, aparteko baliabide bat prestatu zen, beharrezkoa izan balitz aktibatzeko.

Foru Aldundiak oso modu egokian baloratzen du babesgabetasun-egoeran dauden eta indarkeria matxista jasan duten emakumeei arreta emateko 2018an abian jarritako intentsitate handiko baliabide espezifiko baten kudeaketan izandako esperientzia.

Bilboko Udalak jakinarazi du osasun-krisiarengatik sortutako baliabideetako batean emakumeei soilik ematen zaiela arreta, eta gainerakoetan plaza bereziak daudela emakumeentzat. Gainera, Bizitegi Elkartearekin batera lan egiten da Borobiltzen

proiektuan, emakume horiei gizarte- eta hezkuntza-laguntza eta laguntza psikosoziala emateko.

Donostiako Udalak erantzun du 2020. urtean ez dela baliabide espezifikoko berririk jarri bazterketa-egoeran dauden emakumeentzat, tutoretzapeko aipaturiko etxebizitza horiek izan ezik. Udalak, 2020ko martxotik ekainera bitarteko konfinamenduan, hainbat neurri hartu zituen, hala nola prestazio ekonomikoen izapidetze "espresa" edo prostituzioan diharduten emakumeei elikaduran laguntzea.

2019an Gizarte Harrerarako Udal Zentroan emakumeei eskainitako arretari buruzko azterlan bat egin ondoren, 2020an azterlan horren ondorioetatik sortuko ziren neurriak planifikatu eta ezartzea aurreikusten zen. Helburu horri ezin izan zaio heldu COVIDak eragindako erabilera-aldaketengatik (eta zentro horretako antolamendu-estres handiagatik). Jakinarazi dute sail horrek 2021ean heldu nahi diola gai horri.

Nolanahi ere, jakinarazi dute tutoretzapeko etxebizitzetako 2, gutxienez, eta 5 bat harrera-etxebizitza emakumeentzat direla. Beren ustez, etxebizitza asko dituzte eskariari egokitzeko; eta beharrezkotzat edo egokitza jotzen bada, emakumeak beste emakume batzuekin soilik bizi ahal izatea bermatzen dute. Tutoretzapeko etxebizitzetako lotutako hezkuntza-taldean bi emakumek (lautik) lan egiten dute; eta ahal dela etxebizitza horiek artatzen dituzte.

Esku-hartzeen laburpena:

- **Behar espezifikoari arreta** eskaintzearen garrantzia; behar horiek zerbitzu espezializatuetan artatu behar dira, eta, zehatzago, etxerik gabeko emakumeak, emakumeen kontrako indarkeriaren biktima diren emakumeak eta pertsonen salerosketaren biktima diren emakumeak direnean.
- Bizitegi-bazterketa prebenitzeko eta jorrazteko politiketan **genero-ikuspegia indartzearen** garrantzia (OHEZren 4. ardatza). Ardatz horretan bost gidalerro zehatz jasotzen dira, bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeei ematen zaien arreta hobetzeari buruzkoak (eta, zehazki, emakumeek soilik erabiltzeko plazen erreserba hobetzeari buruzkoak; emakume horiek, ahal dela, emakume-taldeekin bizi behar dute eta haiengandik jaso behar dute arreta, beren behar espezifikoak asetzeko).
- Etxerik gabeko emakumeei buruz egin diren azterketa eta diagnostiko espezifikoetatik eratorritako neurriak abian jartzea.
- Etxerik gabeko emakumeentzat **zehazki diseinatu diren eta haientzat diren programak** garatzea.
- **Eskakizun txikiko eta intentsitate ertaineko eta handiko bizitegi-baliabideak eta ostatuak, berriaz emakumeei arreta eskaintzen dietenak**, bizitegi-bazterketako egoeran dauden emakumeei modu pertsonalizatuan eta banaka laguntzeko. **Baliabide espezifikoak sortzea** osasun-krisiak iraun bitartean, emakumeak eskusiboki artatzeko. Orobat, **plaza bereziak** sortzea gainerako baliabideetan.
- **Tutoretzapeko etxebizitzak eta abegi-etxeak irekitzea etxerik gabeko emakumeentzat**; bizileku horietan, beste emakume batzuekin bizitzeko aukera izateaz gainera, heziketa-taldeko kideen erdiek, gutxienez, emakume espezializatuek trebatuak izan behar dute.
- Hitzarmenak **Esku-hartze Sozialeko Hirugarren Sektore** espezializatuko elkarte eta erakundeekin, gizarte- eta hezkuntza-arloko laguntza eta laguntza

psikosozial espezializatua emateko eta zerbitzuak eta prestazioak etxerik gabeko emakumeen beharretara egokitzeko.

- **Prestazio ekonomikoen izapidetze "espresa"** eta elikaduran laguntzea prostituzioan diharduten emakumeei.
- **Aldi baterako baliabide bat sortzea**, babesleku komunetan ostatu hartuta dauden emakume batzuei erantzuteko, ostatu hartzeari, mantenuari eta oinarrizko laguntza operatibo eta psikologikoari dagozkion oinarrizko premietan laguntza eskaintzeko.

4. Arartekoaren 2020ko ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorren jarraipenaren ondorioak

Arartekoak atal honetan Arartekoaren 2020ko ekainaren 5eko 2/2020 Gomendia betetzeari buruz egindako azterketaren ondorioak bildu dira. Gomendio horren izenburua honakoa da: *"Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez"*.

Egindako azterlanak agerian uzten ditu, alde batetik, larrialdiko eta askotariko zailtasuneko testuinguru batean lehendik zegoen sistemari aurre egin eta hura indartu behar izan zuten euskal administrazio publiko askok egindako ahaleginak, betiere mundu mailako pandemia soziosanitario batek dakarrena kontuan hartuz. Era berean, sistemaren ahuleziak eta erronka garrantzitsu batzuk ikusaraztea ahalbidetu du. Erronka horiek lehentasuna dira erakunde eta botere publikoentzat, gizarte-kohesio handiagoa lortzeko eta bazterketarik gabeko pertsona guztiei tratu duina emateko.

ONDORIOAK

1. Etxerik gabeko emakumeen eta gizonen hazkundera

Etxerik gabeko pertsonen kopuruak azken urteetan izan duen gorakada agerian geratu da hainbat azterlan eta diagnostikotan, bai EAEn, bai Estatuan eta EBn.

Europako Parlamentuaren arabera, etxerik gabeko pertsonen kopurua handitzearen arrazoiaren artean honako hauek daude: etxebizitzaren kostuen igoera, krisi ekonomikoaren eragina, gizarte-babesaren murrizketa eta estatu kide askotan etxerik gabeko pertsonen egoerari aurre egiteko politiken urritasuna. Lisboako Adierazpena adostu zen goi mailako konferentzian, etxebizitzaren prezioaz gain, lan-prekarietatea ere aipatu zen, eta beste eremu batzuetako beste jarduera batzuen garrantzia nabarmendu zen, prebentzioari begira.

COVID-19ak eragindako osasun- eta gizarte-krisiaren ondorioz, are premiazkoagoa da gizarte- eta bizitegi-bazterketako egoerak areagotzeko eta betikotzeko arrazoiaren detekzioa eta hausnarketa sakontzea.

Arartekoak egiaztatu ahal izan du azken urteotan gora egin duela etxerik gabeko pertsonen kontsulta eta kexa kopuruak (erakundeari banaka zuzendu zaizkionak),

eta azken bi urteetan izugarri handitu dela. Kexa horietako batzuek emakumeei eragiten zieten, 50 urtetik gorako adin-nagusitasunari, eta hori kezka-faktore gehigarria izan da. Honako arrazoi hauengatik jaso dira kexak: dauden beharrak asetzeko adina egoitza-plaza ez dagoelako, erabiltzaileen beharrizan espezifikoetara (sexuaren, adinaren, osasun mentalaren eta segurtasunaren arabera) egokitu ez delako, esku-hartze sozialaren gabeziak, osasun-beharrak eta bete gabeko oinarrizko beste premia batzuk (higienea edo elikadura, esaterako) daudelako, eta administrazio barruko eta administrazio arteko koordinazioak arreta gabe uzten dituelako egoitza-zentroetatik ateratzen direnean. Era berean, gizarteratze-ibilbiderako administrazio-izapide jakin batzuek duten garrantziarekin zerikusia duten zailtasunengatik, eta bizileku informalak uztearekin eta bizitoki-alternatibarik gabe gizarte-baliabideak kanporatzearekin lotutako arazo batzuek.

Etixerik gabeko pertsonen profil berriak askotarikoak dira adinari, sexuari edo jatorri nazionalari dagokienez, bai eta zirkunstantzia pertsonalei eta bizitzako historiei dagokienez ere; beraz, alderdi eta behar guztiei erantzutea konplexua da.

2. EAEko etxegabetasunaren egoera ezagutzeko datuak eta azterlanak

EAEn etxerik gabeko pertsonen zenbaketak egiten ari dira kalean 2010etik, azkena 2020tik, COVID-19ak eragindako alarma-egoeraren garaian. Gainera, SIISek bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruz egindako azterlanak daude, bai eta EUSTATEk etxerik gabeko pertsonentzako baliabideei buruz egindako estatistika-eragiketak ere. Etxegabetasunaren kartografia oso baliotsua dago arazo sozial larri honi aurre egiteko beharrezko neurriak diseina daitezten.

3. Egindako zenbait ebaluazio

EEEarri buruz EAEn egindako tarteko jarraipen-txostenak planteatzen du neurrien % 34k garapen handia izan dutela eta etxebizitza-ikuspegia falta dela. Garatu gabe daude, halaber, etorkinen erregularizazioari eragiten dioten gaiak, emakumeen eta kolektiboen egoera, hala nola osasun mental larriko arazoak dituzten pertsonena, desgaitasunarena edo droga-kontsumoak dituzten pertsonena. Gutxi garatutako beste neurri batzuk komunitarioak dira, baita aisialdirako sarbidea ere.

Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazioa Bigarren Plan Estrategikora bideratutako zenbait gomendiorekin amaitzen da, eta horien artean honako hauek nabarmentzen ditugu:

- ✓ Lurralde bakoitzean gizarte-zerbitzuen sarearen hedapenean aurrera egitea, hainbat inklusio-ibilbiderekin modu integratuan eta koherentean, eremu bakoitzean lehen eta bigarren mailako arretako baliabideen sarea ziurtatuz, zentroyen eta zerbitzuen hedapen eraginkorra gerta dadin eta, ahal den neurrian, erantzunen kontzentrazioa hiru hiriburuetan murriztu dadin.
- ✓ Sare hori (lauretan gutxien garatu dena) sendotzeko prozesua amaitzea, bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen arreta emateko premien gorakadari erantzun nahian (pandemiaren eragin ekonomiko eta sozialetik eratorritakoak, besteak beste).

- ✓ Erreferentearen figuraren eredu partekatuari, kasuaren koordinazioari (sektoriala eta sektoreartekoa) eta gizarte-laguntzari garrantzia ematea.
- ✓ Gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako egoitza-zentroi buruzko araudia garatzea, edo Arreta Pertsonalizatuko Plana arautzea, bai eta helduen babesgabetasun-egoerak baloratzeko tresna diseinatzea ere.
- ✓ Lehen eta bigarren mailako arretaren artikulazioa hobetzea, arretaren jarraitutasunaren eta malgutasunaren mesedetan, bi norabideetako igarobidea sustatuz. Arreta-eredu komunitariotik egin beharreko hausnarketari ekitea, besteak beste, arretaren integritasunean, jarraitutasunean, pertsonalizazioan eta hurbiltasunean eta pertsonarengan oinarritutako arreta-ikuspegian eragiten baitu.
- ✓ Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioko Euskal Sistema bultzatzea, haren magnitude nagusien eta plangintzaren koherentzia eta egokitasunaren ezagutza eguneratua lortzeko gizarte-zerbitzuen eremuan.
- ✓ Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia indartzea, kalitatearen ebaluazioa eta etengabeko hobekuntza bultzatzeko, eta gizarte-zerbitzuen eremuan ikerketarako gidalerroak garatzeko, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko berriak ezartzen dituen lehentasunen esparruan.
- ✓ Bizigune sozialean aurrera egitea. Hala, besteak beste, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen etxebizitza eskuratzen laguntzeko.

4. Etxebizitza egokia izateko eskubidea

Nazio Batuen arabera, etxebizitza egokia izateko eskubidea oinarritzko giza eskubide gisa aitortu da, giza eskubideen oinarritzko balioetatik banaezina delako (hala nola duintasuna, berdintasuna, inklusioa, ongizatea, pertsonaren segurtasuna eta parte-hartze publikoa). Etxebizitza izateko eskubidea ez da modu murriztailean interpretatu behar bizitoki bat izateko eskubidetzat, hau da, bizitoki-baliabidetzat; aitzitik, pertsonaren duintasunari lotutako eskubidetzat hartu behar da, eta bakean, segurtasunez eta duintasunez etxe batean bizitzeko eskubide gisa definitu beharko litzateke. Agintari publikoek bermatu behar dute, aldi baterako ostatua etxebizitza egokiaren aurreko urratsa izan arren, bertan bizi diren pertsonen arrazoizko egonkortasuna izango dutela aldi baterako egoera horren esparruan, bereziki familiak, adinekoak, haurrak eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden beste pertsona batzuk tartean hartzen dituzten kasuetan.

5. Etxegabetasunari aurre egiteko nazioarteko erakundeak

Nazio Batuak, Europako Kontseilua eta Europar Batasuna kezkatuta agertu dira etxerik gabeko pertsonen kopuruak gora egin duelako. 2021eko ekainaren 21ean Lisboan egindako Goi-mailako Konferentzian adostutako [Lisboako Adierazpenean](#), gobernuek konpromisoa hartu zuten 2030erako etxegabetasunari aurre egiteko eta fenomeno hori desagerrarazteko Europako Plataforma abian jartzeko. Konferentzia horretan, Batzordeak, Europako Parlamentuak, estatu-, eskualde- eta toki-agintariek eta gizarte-erakundeek konpromiso jakin batzuk hartu zituzten.

6. Nazioarteko erakundeen proposamenak eta gomendioak

Nazioarteko erakundeek aintzat hartu beharko liratekeen proposamenak eta gomendioak egin dituzte etxebizitza egokia bermatzeko, etxegabeteak saihesteko, bizitegi-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen arreta emateko baliabideak eta zerbitzuak babesteko edo aporofobiak eragindako gorroto-delituen eta gertakarien aurka babesteko politika publikoak diseinatzerakoan, besteak beste: [COVID-19ari buruzko ohar orientagarria](#). Etxegabeen egoeran dauden pertsonak babestea, [Guidelines of the Committee of Ministers of the Council of Europe on upholding equality and protecting against discrimination and hate during the Covid-19 pandemic and similar crises in the future](#), [Europako Parlamentuaren 2020/2802 Ebazpena, azaroaren 24koa](#), Europar Batasunean etxegabeen kopuruei aurre egiteko moduari buruzkoa (2020/2802(RSP)), [Europako Parlamentuaren Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 21ekoa](#), guztiontzat Duina eta eskuragarria izango den etxebizitza bat eskuratzeari buruzkoa.

7. Euskal gizarte-babeserako sistema

Gure kaleetan etxerik ez duten pertsonak egoteak eta handitzeak dilema etiko eta moral bati aurre egin behar dio berriro ere gizarte gisa, eta etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea praktikan jartzeko premia larria dagoela egiaztatu behar dugu, bai eta gizarte-zerbitzuen prestazioak eta zerbitzuak jasotzeko eskubidea eta bazterkeria pertsonaleko, sozialeko eta laboreko egoerak arintzeko prestazio ekonomikoak eta tresnak jasotzeko eskubidea ere. Oinarrizko eskubide horiek ezinbestekoak dira, baina ez da aurrera egiten prestakuntza- eta lan-politiketan pertsona horiek oinarrizko premiak estaltzeko behar adina sarrera eskuratzea ahalbidetzeko. 2016an, Eusko Legebiltzarrak, otsailaren 19ko lege besteko proposamenean, etxerik gabeko pertsonen egoera errotik aldatzeko eskatu zien euskal administrazio publikoei, bizitzaren eremu guztietan gizarteratzeko eta etxerik gabeko pertsonen arreta integrala emateko prozesuak bermatzeko, modu koordinatuan eta bikoiztasunak saihestuz. Badira, beraz, bizileku bizigarri seguru eta egokia bermatzen duten politika publikoei euskarria ematen dieten legeak eta mandatuak (Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 7. artikulua). Eusko Jaurlaritzak, bere organo eskudunen bitartez, bai eta gizarte-zerbitzuen eta etxebizitzaren arloan eskumena duten foru- eta toki-erakundeek ere, zeregin horretan inplikatu behar dute, beharrezko gizarte-azpiegiturak susta daitezten. Besteak beste, babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedura arruntetik kanpo uztea beste bizileku bat emateko eskubidea bermatzera eta gizarte-bazterkeriako arrisku-egoerak konpontzera bideratutako etxebizitzak (Lege horren 32.2 artikulua).

8. Euskal herri-administrazioen erantzunen azterketa

Euskal administrazio publikoetatik jasotako erantzunak askotarikoak izan dira pandemiarekin abian jarri diren baliabideei eta neurriei dagokienez, baita garatzeko asmoa duten beste baliabide eta neurri batzuei dagokienez ere. Jasotako informazioari esker, etxerik gabeko pertsonentzako gizarte-arretaren errealitateari

buruzko argazki bat eskura daiteke, estrategia berria edo jarduteko proposamen berriak diseinatzeko interesgarria dela uste baita.

Jasotako erantzunen analisiak aukera ematen du konfinamenduan etxerik gabeko pertsonen arretan euskal administrazio publikoek duten inplikazioa eta hasitako gizarteratze-prozesuei eta abian jarritako programei jarraipena emateko egindako ahaleginak aitortzeko.

Hala eta guztiz ere, ahalegin **hori ez da nahikoa izan gure kaleetan hazten ari den etxegabetasunaren arazoa konpontzeko** eta, alarma-egoeraren ondoriozko konfinamenduaren ondoren, gizarte-zerbitzuen euskal sistemaren barruan eta beste sistema publiko batzuekin (hala nola etxebizitzarekin eta diru-sarrerak bermatzearekin) lankidetzan kalitatezko sistema artikulatu eta egonkor bat sortzeko arintasun nahikoarekin aurrera egitea ahalbidetzeko.

Gizarte-zerbitzuen euskal sistemak erantzukizun publikoa eta pertsonarengan oinarritutako esku-hartze komunitarioaren eta arretaren eredia ditu ezaugarri, eta sistemen arteko lankidetzak behar du egoeren eta beharren aniztasunari erantzuteko: gazteak, emakumeak, adineko gizonak, hainbat osasun-arazo dituzten pertsonak eta abar, bizitoki seguru eta egokirik ez dutenak.

Ateratako irakaskuntza horren arabera, etxerik gabeko pertsonari, emakumei eta gizonei, ematen zaien arreta irauli egin behar da arretaren jarraitutasunera eta instalazioen duintasuna ziurtatzera bideratutako arreta-azpiegitura eta -programetara, bai eta etxebizitza duin eta egokia izateko eskubidea betetzera ere.

Premien aniztasunera egokitzeko beharrak arreta orain arte birplanteatzera behartzen du, eta hori gizarte-zerbitzuen euskal sisteman integratutako estrategia espezifiko baten eskariz, beste estrategia batzuekin lerrokatuta, hala nola Housing First programa (1.2.3.3.2 ekintza) aurreikusten duen [Etxebizitzaren Gida Planarekin \(2021-2023\)](#) edo Gizarteratzeko Euskal Planarekin. Etxebizitzaren arloan eskumena duen sailaren, toki-erakundearen eta etxebizitzaren arloan eskumenak dituzten gainerako erakunde publikoen inplikazioak bermatzen du etorkizuneko estrategiak emaitzak izan ditzakeela. Edozein esku-hartze sozialek bizileku bat eskuragarri izatea ekarri behar du; beraz, gizarte-zerbitzuen eta etxebizitzaren arteko lerrokadura *conditio sine qua non* bat da. Pertsonarengan oinarritutako arretaren ondorioz, administrazio barruko eta administrazio arteko lankidetzak behar da.

Beste premia mota batzuei dagokienez, ondoriozta daiteke COVID-19aren pandemiari aurre egiteko osasun-arreta modu egokian bete dela, eta eremu horretan ezin dela inolako eragozpenik jarri. Onartu berri den 2021-2024 aldirako Euskadiko Estrategia Soziosanitarioak desberdintasun-ardatzek bereziki eragindako kolektiboen behar soziosanitarioei arreta ematearen garrantzia azpimarratzen du, diskriminazio-egoeran edo gizarte-kalteberatasun handiagoan kokatzen baititu, eta ondorioztatzen du guztion eta guztiontzako osasun-ekitatea bizitza osoan sustatzea ez dela soilik baliabide bat, baizik eta gizarte-kohesioa sortzeko osagaia eta gizarte-desberdintasunak erreproduzitzen dituzten eta gizarte-bazterkeria, pobrezia eta gaixotasuna eragiten duten mekanismoak hausten dituen elementua. Aurreikusitako ekintzen artean, bazterkeria-egoeran eta gizarte-kalteberatasuneko egoeran dauden pertsonari arreta emateko sistemen arteko koordinazioan aurrera egitea dago.

Elikagai-premia ere asebate da, baina udalerraren arabera era askotara, betiere pandemiaren aurretik azpiegiturarik ba ote zegoen kontuan harturik eta eskatu duten pertsonen kopuruaren arabera. Hala, Donostian salbuespenezko neurriak antolatu behar izan ziren, eta gizarte-kolektiboan kexa jasotzen jarraitzen du egoerak.

Oinarrizko premia horri erantzuteko moduak, gizarte-jantokietako ordutegiak edo jantokirik ez izateak pertsonen eguneroko jarduerak zehazten ditu, eta, beraz, beharrezkoa da hura asetzeko moduari buruzko gogoeta egitea, gizarteratze-prozesuak errazteko.

Balioespen positiboa egin behar da administrazio publikoek eta Gizarte Eskuhartzearen Hirugarren Sektoreko gizarte-erakundeek gogoeta partekatu bat egin dutelako bete beharreko premiei buruz edo programa berriak abian jartzeari buruz. Arreta-sareen arteko komunikazioa hobetu da, eta teknologia digitalak erabiltzeko aukera bat izan da.

Arreta psikologikoaren eta mentalaren beharrak betetzeko modua erronka handia da oraindik ere, pertsona horiek jasotzen duten arreta egokian duten pisuagatik, bai kalean bizi badira, bai gizarte-baliabideetan plazak badituzte. Lurralde batzuetan aurrera egin den arren, oraindik ere antzematen dira estaltzen ez diren premiak.

Jasotako kexetan, hobetzeko tarte bat ikusten da gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioari dagokionez, pertsona erroldan inskribatuta ez dagoenean eskumena duen administrazioari edo zerbitzuari buruzko erabakiak hartzeaz denaz bezainbatean.

Azkenik, etxerik gabeko pertsonen arretari buruzko kezka agenda politikoan jarri da, eta, horren ondorioz, baliabide berriak mobilizatu dira, administrazio publikoen arteko koordinazio-mekanismoak abiarazi dira eta zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko baldintzak malgutu dira. Horrek guztiak prestakuntza handiagoa ekarriko du estrategia integral bat abian jartzeko orduan (hura betetzeko konpromiso publiko bat hartuko duena).

Gure kaleetan etxerik ez duten pertsonen kopurua handitzea eta mantentzea lotsagarria da. Horrek, pertsona horiek kokaleku inprobisatuetan jasaten dituzten utzarazpenekin batera, bizileku-baliabide alternatiborik gabe, aterperik gabe uzten ditu beren burua babesteko tokirik ez duten pertsonak, eta horrek arrisku larrian jartzen ditu beren osotasun pertsonala, eta zaugarritasun-egoera larriagotzen du, bai eta lehendik pairatzen zuten gizarte- eta egoitza-bazterketa larria ere.

9. Emakumeen etxegabetasuna

Kalean emakumeak egoteak, bikotekidearekin batera egon ala ez, galdera larriak sortzen ditu aldeztu aurretik hartu behar diren prebentzio-neurriak buruz eta etxerik gabeko emakumeen premien arretari buruz (besteak beste, Nazio Batuen, Europar Batasunaren, Emakunderen edo Bizitegi bezalako gizarte-erakundeen txosten askotan islatutakoak). Emakumeen premiei arreta emateak berekin dakar gizarte-larrialdietako zerbitzuen egokitzapen osoa, haien segurtasuna bermatzeko.

Indarkeriak etxerik gabeko emakumeengan duen eragina dela-eta, berriz aztertu behar da haien arreta, eta jarduketak egin behar dira etxerik gabeko ezkutuko egoerak antzemateko.

Etorkizuneko Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa eta etorkizuneko Etxerik Gabeko Pertsonen II. Euskal Estrategia aukera bat dira genero ikuspegia duten etxerik gabeko pertsonen beharrei erantzuteko neurriak txerta daitezten, arretaren lurralde oreka eta bizitza duinaz gozatzeko aukera emango dien arretaren kalitatea bermatuz.

10. Finantzazioa

Finantzaketari dagokionez, interesgarria dirudi Europako Gizarte Funts Plusaren (EGF+), Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren edo InvestEU programaren aurreikuspenak kontuan hartzea, EBko organoek arreta-eremutzat jo baitute hura desagerrarazteko baliabide ekonomikoak bideratzea.

11. Azken ondorioa

Azken batean, alarma-egoera amaitu ondoren, euskal administrazio publikoek martxan jarritako neurriak eta programak ezartzen jarraitu dute, eta programa eta ekintza berriak egokitu eta bultzatu dira. Horri esker, Arartekoak ondorioztatu du bete egin dela Arartekoaren 2/2020 Gomendia, 2020ko ekainaren 5ekoa ("*Euskal administrazio publikoek jarraipena eman behar diete kalean bizi diren pertsonak artatzen orain arte egindako ahaleginei, betiere Etxegabeentzako Euskal Estrategiako (2018-2021) jarraibideak betez*"), EEEari buruz egin beharreko azken ebaluazioaren zain.

Hala eta guztiz ere, jarraipen-txosten honetan agerian geratu den errealitateak **gizarte-gertaera horrekin bat datozen politika publikoak hartzera behartzen du, horien kopurua handitzea errotik geldiarazteko eta desagerraraztea lortzeko** gai direnak, gainerako giza eskubideekin bateraezina baita haien iraunkortasuna, eta horiek babestea baita gizarte demokratiko baten ezaugarri bereizgarria.

Jarraipen-azterlan honetan egindako azterketari eta eremu horretan eragina duten plangintza-tresnak egiteko aurreikuspenak ematen duen aukera-uneari erreparatuta, ekarpen jakin batzuk egitea interesgarritzat jo da.

EKARPENAK

I. Izaera integralekoak:

1. Botere publikoek etxegabetasuna erazteko goi-mailako inplikazioa bultzatzea. Etxerik gabeko pertsonen egoerari erantzuteko erronka ezin du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak bakarrik izan. Beharrezkoa da, beraz, erakunde-maila guztien eta gizarte-

eskubideak betetzeari lotutako beste arlo eta sail batzuen arteko lankidetzaz, batez ere etxebizitzaren arloko eskumenekin.

2. Etxerik gabeko pertsonen babesa bermatuko duen eta diskriminazioari eta aporofobiari aurre egingo dien araudia egiteko aukera aztertzea. Hori guztia Europako Gutun Soziala (berrikusia) berrestearekin hartutako konpromisoak betez, eta 2021eko ekainaren 21ean Lisboan egindako goi-mailako konferentziatik eratorritako konpromisoekin eta Europako Parlamentuaren 2021eko urtarrilaren 21eko eta azaroaren 24ko ebazpenekin bat etorri⁵³. Erabaki horietan babes sozial handiagoa eskatzen zaie Batzordeari eta estatuei.
3. Etxerik Gabeko Pertsonentzako hurrengo Euskal Estrategia etxebizitzaren, gizarteratzearen, enpleguaren, osasunaren, justiziaren, segurtasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloko politika publikoekin bat etor dadin sustatzea. Zehatzago esanda, beharrezkoa da Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin koordinatzea osasun-beharrei dagokienez, baita haurrak babesteko zerbitzuarekin, gazte-justiziaren zerbitzuarekin eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren espetxe-administrazioaren zerbitzuarekin ere, kasu honetan askatasunaz gabetzeko neurriak eta zigorrak betetzeko egoitza-zentroetatik irteteak duen garrantziagatik. Bestalde, funtsezkoa da udaletako segurtasun-arloaren eta gizarte-zerbitzuen arteko koordinazioa, kokaleku informalak husteari dagokionez.
4. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea eta foru-aldundietako eta udaletako berdintasun-zerbitzuak inplikatu behar dira hurrengo EEEaren prestaketan, etxerik gabeko emakumeen hazkundera duen garrantziagatik eta EEEk txertatzen duen eta Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren ebaluazioan gomendatzen den zeharkako genero-ikuspegiaren garrantziagatik. Zehazki, EEEk, 2018an, inklusio-programen eta -jarduketan aurreko egoera-diagnostikoen berri ematen du. Diagnostiko horiek androzentrismoa eta estandarizaziotik ihes egin behar dute, eta bi sexuen gizarte-desberdintasunaren errealitatea eta haren premia espezifikokoak identifikatzearen garrantzia jaso behar dute (gune espezializatuak eta segurtasunekoak sortzea, intimitatea eta laguntza kualitatiboa, emakumeen etxegabetasunari buruzko prestakuntza, eta abar).
5. Etxerik gabeko pertsonen hurrengo euskal strategiaren diseinuaren hasieratik eta haren ebaluazioan Gizarte Esku-hartzearen Hirugarren Sektorea partaide egitea.
6. Eragile guztien lankidetzaz bultzatzea gizarteratze-ibilbide pertsonalizatuan, eragile publikoetan eta gizarte-erakundeetan, lehen

⁵³ Horrenbestez, etxerik gabeko pertsonak kriminalizatzen edo zigortzen dituzten lege eta neurri guztiak edo etxerik ezarekin lotutako jokabideak (esaterako, espazio publikoetan lo egitea edo jatea) indargabetzea, eta etxerik gabeko pertsonak espazio publikoetatik nahitaez hustea debekatzea, bizitokirako alternatiba seguru bat eskaintzen ez bazaie eta haien ondasun pertsonalak suntsitzea debekatzen ez bada. Ebazpena, 2021eko urtarrilaren 21ekoa, op.cit.

eta bigarren mailako arretan, hainbat administrazio-mailatan eta lurraldetan.

7. Etxegabetasunaren detekzio goiztiarra hobetzea pertsoneri arreta emateko zerbitzu publikoetan, hala nola gizarte-zerbitzuetan, arreta psikologiko eta psikiatrikoko zerbitzuetan edo larrialdietarako telefonoetan, bizikidetz-egoera jasanezinak daudela egiaztatuz gero, ezkutuko etxegabetasun-egoerak ager baitaitezke edo, orientazio egokirik gabe, egoera hori eragin baitezakete.
8. Migrazio-prozesuak kontuan hartzea hartu beharreko neurrien funtsezko faktore gisa, ez baitira behar bezala aurreikusten, migratzaileek dituzten premia espezifikoengatik eta migratzaileek administrazio-egoera erregularrean sartzeko eta egoteko dituzten zailtasunengatik. Azken horri dagokionez, azpimarratu behar da orientazio juridiko egokia behar dela gizarteratze-prozesuan aurrera egiteko eta Eusko Jaurlaritzaren eta Estatuko Administrazio Orokorren arteko lankidetz- eta koordinazio-neurriak bultzatzeko⁵⁴.
9. Etxerik gabeko pertsonen egoerari eta beharrei buruzko prestakuntza eta sentibilizazioa lehenestea, bai herritarrenak, bai langile publikoenak (ertzainak, udaltzainak, osasun-langileak, garbiketa-zerbitzuak, herritarrei arreta emateko zerbitzuak, etab.). Prestakuntza horrek bizitegi-bazterketaren faktore endogenoak eta exogenoak jaso behar ditu, eta pertsona horiek jasaten duten indarkeria eta aporofobiari buruz kontzientziatzea izan behar du helburu.
10. Hezkuntza-langileekin eta gizarte-sare komunitarioarekin konfiantzazko loturak eraikitzearen eta aldatzearen garrantziaz jabetzea, pertsonen bizitzan eragin handia duten gizarteratze-ibilbide kaotikoak saihesteko. Batez ere, eragiten dieten erabakiak hartzeari dagokionez, hala nola deserrotzearen ondoriozko etxebizitz- lekualdatzei buruzkoak, edo egoitza-baliabide batetik irteteak dakarren jokabidea eta baldintzak ez betetzea baloratzekoan.
11. Etxerik gabeko pertsonen bizitza eta duintasuna arriskuan jar dezaketen eguraldi txarraren aurrean (euria eta tenperatura baxuak) larrialdietarako babeslekuetarako sarbidea bermatzea, espazio publikoetan kokaleku informalak husten direnean bezala. Helburu bera izanik, gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako eguneko zentroak indartzea.
12. Pertsona horien duintasunarekiko errespetua gailentzea zerbitzu horietara sartzean, baldintza egokiak bete beharko lituzketelako tokiari, espazioari eta ordutegiei dagokienez.

⁵⁴ Ikus Arartekoaren azterlanean eremu horri eragiten dioten gomendioak. Familia-erreferenterik gabeko gazte migratzaileak Euskadin, op.cit. gomendioak 1, 2, 9, 10 eta 11

13. Etxerik gabeko pertsonak esku-hartze sozialean eta baliabideen esleipenean eragina duten erabakietan duten parte-hartzea hobetzeko moduari buruz hausnartzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua betez, bai eta esku-hartzearen orientazioan eta ebaluazioan, zerbitzuen diseinuan eta ebaluazioan edo zentroetako eguneroko bizitzaren antolaketan ere.
14. Aporofobiari eta etxerik gabeko pertsonen aurka erabiltzen den edozein indarkeria edo diskriminaziori aurre egiteko neurriak aurreikustea. Horretarako, prebentzio-, sentsibilizazio- eta babes-neurriak hartu behar dira, bai eta laguntza eta orientabide egokiak ere, jasaten duten edozein indarkeria-ekintzaren aurrean salaketak aurkeztea errazteko.
15. EEE betetzeaz arduratzen diren pertsonen parte-hartzea bultzatzea European eta Espainian etxerik gabeko pertsonen egoera eta hazkundera lantzen duten lantalde eta batzordeetan, Euskadin duten eraginagatik, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren eta beste sistema batzuen koordinazio- eta lankidetzako-organoen edo -guneetan ere.
16. Etxerik gabeko eta egoitza-bazterkeriako egoeran dauden pertsonen beharrianak hobeto hautemateko eta horiei erantzuteko ikerketa-ildoak sustatzea.

II. Izaera sektorialekoak:

Etxebizitza:

17. Gizarte- eta bizitegi-eremua sustatzea, Eusko Jaurlaritzaren, foru-aldundien eta gizarte-erakundeen eskura dauden gizarte-babeseko etxebizitzaren parkea zabalduz, eta etxebizitza bat eskuragarria izateko politikak sustatzea.
18. Nazioartean egiaztatutako jardunbide onenak detektatzea, transferitzea eta egokitzea, hala nola Housing First eredua, etxerik gabeko pertsonen etxebizitza iraunkorrak eskaintzeari lehentasuna emateko, edo Housing Led eredua, Europako Parlamentuak proposatutako ereduak, hainbat modalitatetako ostatu-sistema plurala ahalbidetzen dutenak eta eskailera-eredua eta banakako erantzukizun-eredua zalantzan jartzen dutenak⁵⁵.

⁵⁵ Besteak beste, honako hauek aipatzen dira: azterlanean identifikatu diren proposamenak (BAPTISTA, I eta MARLIER, E., 2019), bai eta Europako Behatokiak Etxekotasunik Gabeari buruz egindako txostenetik eratorritakoak ere: «Financing Homelessness services in Europe, 2021». Hemen eskuragarri: https://www.feantsaresearch.org/public/user/Observatory/2022/Comparative_Study/Feantsa-Studies-11_v0253.pdf

- 19.**Etxegabetzeen aurkako protokoloak ebaluatzea era guztietako kaleratze judzialen aurrean, legez kanpoko okupazioengatik jabetza berreskuratzea barne, horien ahuleziak hautemateko eta etxegabetasuna hobetzeko eta prebenitzeko neurriak proposatzeko.

Diru-sarrerak bermatzea:

- 20.**Elkarbizitza mugatzen duten legezko oztopoak kentzea etxebizitza bakoitzeko bi bizikidetzta-unitatera edo bizikidetzta-unitate berezien iraupenera, kolektibo horrentzako alokairu-merkatuan etxebizitza bat eskuratzeko zailtasunen aurrean prestazio ekonomikoen hartzaile izateko.
- 21.**Pertsona horiek diru-sarreraren gutxieneko prestazioak eskuratzeko baldintzak egiaztatzeke dituzten oztopoak erraztea eta kentzea, hala nola erroldaren eta alokairu-kontratuaren betekizuna, adibidez, gizarte-errolda aitortuz, gizarte-laguntzan eskumena duten gizarte-zerbitzuen lankidetzarekin eta koordinazioarekin, oinarritzko eskubideak baliatzeko eta gizarteratzeko prozesuan duten garrantziagatik.

Gizarte Zerbitzuak:

- 22.**Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan eta Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoan etxerik gabeko pertsonentzat erabil daitezkeen zerbitzuak berrikustea, atzemandako premia berriei eta kolektibo horri arreta emateko beharrezkoa den lurralde-hedapenaren eskakizunei erantzuteke, bai eta arretaren jarraitutasunaren printzipiotik edo banakako espazioen beharretik eratorritakoak ere (berrikuspenean baloratu beharreko beste gai batzuen artean).
- 23.**Kalean bizi diren eta, haien osasuna arriskuan jarritz, edozein esku-hartze soziali uko egiten dioten helduen babesgabetasun-egoeraren aurrean hartu beharreko neurriei buruz hausnartzea.
- 24.**Helduen babesgabetasun-egoeraren balorazioari buruzko araudia egitea eta onartzea.
- 25.**Ekainaren 2ko 8/2021 Legearen ondoriozko araubide juridiko berritik eratorritako betebeharrak kontuan hartzea. Lege horren bidez, desgaitasunen bat duten pertsonen beren gaitasun juridikoa gauzatzean laguntzeko legeria zibila eta prozesala aldatzen da, eta, horren ondorioz, laguntza-neurriak ezartzen dira beren gaitasun juridikoa behar bezala gauzatzeko babesa behar duten pertsonentzat.
- 26.**Gizarte-bazterkeria baloratzeko eskakizunari buruz hausnartzea, berehalakotasuna eskatzen duten gizarte-arretako premiei erantzuteke, bai eta hori gauzatzeko epeei buruz eta egoitza-plaza

batean sartzeko itxaron-zerrenden funtzionamenduari eta txandakatze-epeei buruz ere.

27. Gizarte-bazterkeriaren balorazioan lehen mailako arretako zerbitzuek duten zereginari buruz hausnartzea.
28. Premia anitz eta konplexuak dituzten pertsonak desgaitasun egoeran, gaixotasun mentala edo mendekotasuna duten pertsonentzako baliabideetan sartzeko zailtasunak aztertzea, pertsonarengan oinarritutako arreta-ereduaren arabera.
29. Etxerik gabeko pertsonen arretarako baliabideen birbanaketa hobetzeko aukerak aztertzea, lurralde historiko bakoitzeko hiri handietatik harago.
30. Etxerik gabeko pertsonak egoitza-zentroetatik kanporatzeak dakarren prozedurari eta ondorioei buruz hausnartzea, zerbitzuaren barne araudia ez betetzeagatik, kasu guztietan bizitoki alternatiba bat eskaintzeko eta eragiten dien edozein erabakiren oinarritzko prozedura bermeak indartzeko, baldin eta horrek kalte egiten badie haien interesei, zehapen-prozeduraren printzipioekin bat etorritz.
31. Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, 25. artikuluan ezarritakoa betetzea; izan ere, bertan aurreikusten da EAEko administrazio publikoek beren eskumeneko zerbitzu eta prestazio ekonomikoei heltzeko eskubidea eteteko eta iraungitzeko prozedura arautu behar dutela, betiere erabiltzaileari bermatuz, besteak beste, prozeduraren izapidetzearen egoerari buruzko informazioa jasotzeko, alegazioak egiteko eta entzunaldi izapidean entzuna izateko eskubidea (25. artikulua).
32. Gizarte-larrialdietako zerbitzuen, lehen mailako arretaren eta bigarren mailako arretaren arteko lotura indartzea, arretaren jarraitutasunari eusteko, bai gizarteratze-prozesu indibidualean, bai baliabideetako arreta-ordutegiei dagokienez, hau da, arretaren integritasuna, malgutasuna eta jarraitutasuna.
33. Kalitatea hobetzeko abian jartzen diren programa eta neurrien egokitasuna eta aukera etengabe ebaluatzea eta berriro diseinatzea.
34. Informazioa biltzeko adierazle multzo bat definitzea (adostuak, koherenteak eta genero ikuspegia kontuan hartzen dutenak ⁵⁶), neurrien ebaluazioa errazteko eta prestazioen eta zerbitzuen kostuak ezagutzeko.
35. Gizarte zerbitzuen euskal sistemako profesionalen arreta psikosoziala bermatzea eta horrelako lan arriskuak prebenitzeko

⁵⁶ Ikusi Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren 20. artikulua..

mekanismoak ezartzea, hala nola estresa, rol anbiguotasuna, "burn out" sindromea, etab.

Osasuna:

- 36.**Arreta soziosanitarioa hobetzea bi sistemen aldi bereko esku-hartze koordinatua behar den kasuetan, gizarte- eta egoitza-bazterkeriako egoerak saihesteko, ospitaleetako egonaldietako alden ondoren, bai susperraldiak ahalbidetzeko, bai ospitale psikiatrikoetatik atera ondoren, ostatu bat eta gizarte- eta osasun-arreta behar direnean.
- 37.**Nahasmendu mentalen eraginari erantzuteko beharra, bai kalean daudenei, bai egoitza-zentroetan plazak betetzen dituztenei dagokienez.
- 38.**Bizkaian etxerik gabeko pertsonen eskaintzen zaizkien zerbitzuen estaldura Euskadiko etxerik gabeko biztanle guztiei zabaltzea aurreikustea.
- 39.**Adikzioak dituzten etxerik gabeko pertsonen gizarteratze prozesuak hasteko behar dituzten oztupoak eta ibilbideak aztertzea.
- 40.**Kolektibo horrentzako zerbitzu soziosanitarioen zorroaren araudian aurrera egitea, historia soziosanitarioan eta talde lanerako eta kasuaren koordinaziorako ekimen gehiagotan.

aRarteko

Herriaren Defendatzailea

Defensoría del Pueblo